

Herririk Herri | 2 |

Bilduk PSE-EEren hautagaia babestuko du Amankomunazgorako bozketan



Berbaz | 8 |

Jon Lasuen: "Birritan pasatu eta gero bota zituzten bonbak Otxandion hegazkinek"

Kirola | 20 |

Euskal Triatloi Zirkuitua irabazi gura du Laubideta triatloi taldeko Gorka Bizkarrak

Aurrejubilatuek epaitegira eroan dute ONA enpresa

Durango• ONAko zortzi aurrejubilatutako soldata barik daude, ordaintzen zien aseguru-etxeak porrot egin eta gero. ELAk ONAri eskatu dio ordaintzeko. Zuzendaritzak dio: "Apra Leveni ordaindu genion ordaindu beharrekoa." **2**

Juan Azurmendik aerografia bidez sortutako koadroak

KULTURA • Durangoko Jai Berri tabernan ipini ditu Juan Azurmendik Kurutzia margo akademiako arduradunak aerografia teknika baliatuz osatu dituen koadroak. Heavy musika sortzaileen erretratuak dira erakusketa horretarako bildu dituenak. **12**

OPORRETAN GOAZ
Abuztuaren 27an jasoko duzue hurrengo alea

GARAI
OTXANDIO
2011
JAIAK
MAÑARIA
MALLABIA

• **Elorrio**
Gose greban dagoen Zengotitabengoari babesa **3**

• **Abadiño**
Oinezkoendako gunea prest egongo da abuzturako **4**

• **Zaldibar**
Correosen ordutegi murrizketa eragozteko sinadura bilketa **7**

Trial txapelketak hartuko ditu Apatako zelaiak hilaren 23an

> Ekimenak iaz izandako arrakasta ikusita, txapelketa berriro antolatzea erabaki dute

> Euskal Herriko lehiarako puntuagarria da eta 4X4ko espezialistak batuko dira **18**



Errusia, Indonesia eta Serbiako dantzak ikusgai

Durangaldea• Durangoko Kriskitin dantza taldeak gonbidatuta, Jakartako unibertsitateko taldeak Indonesiako tradizioko dantza emanaldia eskainiko du uztailearen 23an, Andra Mariko elizpean.

Berrizen, ostera, uztailearen 21ean eta 22an Errusiako federazioaren parte den Udmurt errepublikako eta Serbiako dantza talde banaren saioagaz gozatu ahal izango da pilotalekuan. **14**

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

Alquilar
Eitua industrigurea 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO



Zinegotzien liberazioak eta batzordeen osaketa zehaztu berri dituzte.

276.000 euro urtean zinegotzien liberaziotan

Bilduk uko egin dio liberatuari; Aralarrek %60ko jardunean jarri du berea

Zinegotzien liberazioak onartu berri dituzte udalean. Lanordu osoan jardungo dute Aitziber Irigoras alkateak, EAJko Maria Jose Balierrek, PSE-EEko Idoia Agorriak eta PPko Juan José Gaztañazatorrek. Bilduk uko egin dio liberazioari, eta Aralarrek %60ko jardunean jarri du Iker Urkiza, 33.500 euroko soldata gordinagaz. Lanordu osoan jardungo duten zinegotziek urtean 56.000 euroko soldata gordina edukiko dute; alkateak 75.000 eurokoa.

Batzordeetako kideak

Udaleko batzordeetan egindako moduan, erakunde autonomoen batzordeetan kide bat gehiago-11 kide-egoteko aldaketa egin dute.

Aralarrek kide kopurua sei zinegotzira -lehendakari bat eta alderdi bakoitzeko kide banapasatzea eta boto ponderatua erabiltzea proposatu du; Bildu alde agertu da, EAJ eta PSE-EEK kontra, eta PP abstenitu egin da. Idazkariak txosten batean Aralarren

proposamena ezin dela aurrera eramane adierazi du. Dani Maeztu Aralarreko zinegotziak, ostera, "interpretazio juridiko" kontua dela esan du. Bilduko Urdaspal

Erakunde autonomoetako batzordeak seina kidekoak izatea proposatu du Aralarrek

PSE-EEren alde egingo du Bilduk Amankomunazgorako

Udalak eratu eta gero, laster Amankomunazgoa eratzeko ordua izango da. Bilduk 13 ordezkari edukiko ditu, EAJk 11, Abadiñoko Independentek 2 eta PSE-EEK 1. Laster erakunde gobernu batzordean nor egongo den erabakiko dute.

Durangoko Bilduk gobernu batzorde horretarako PSE-

Bolinagak neurriak ekarriko lukeen "gastu murrizketa" nabarmendu du, eta "borondate politikoa" eskatu.

PSE-EEko Pilar Riosek kide berria-sozialista-liberatua dela eta ez lukeela kobratuko adierazi du. EAJko Goiztidi Diezek lehenago ere 11 kideekin inoiz jardun dutela esan du: "Horrek ez zuen dinamika apurtu". ■ A.Ugalde

EEko Fernando Castilloren alde bozkatuko duela adierazi du; bera da Amankomunazgoan alderdi sozialistak duen ordezkari bakarra. Horrela, "amankomunazgoan ordezkari gutxienez gobernu batzordean kide bat" edukitzea bermatu gura dute la adierazi dute koalizio kideek.

goko M15 mugimenduko kideak. Gaur goizean egin dute ekimena.

Barikuro 20:30ean asanblada egiten dute Andra Marian M15 mugimenduko kideek. Lan batzordeak finkatzen dabilta orain, eta gaurko asanbladan hori izango da gai ordenako puntuetako bat.

Ekintzen berri emateko, bloga ere sortu dute: 15mdurangaldea.blogspot.com. Bertan batzarretako aktak daude, besteak beste. Udara begira asanbladak egiten jarraituko du M15 mugimenduarren asanbladak. ■ A.U.

M15 mugimenduak protesta egin du bankuetan

Dirua armetan inbertitzen dutela salatzeke, bankuetan protesta ekitaldia egin dute goizean

"Ez dugu gura gure dirua armak erosteko erabiltzea": mezu horregaz, eta "Nire diruarekin ez" jarritzen duten billeteak banatuz sartu dira hainbat bankutara Duran-

Euren jardueren berri
15mdurangaldea.blogspot.com
atarian ematen dute

Aurrejubilatuak ONA epaitegira eroan dute

Aurrejubilazioa ordaintzen zien aseguruak porrot egin eta gero ONAri eskatu diote erantzukizuna

ONAKo zortzi aurrejubilatu soldata barik daude urtarriletik hona, aurrejubilazioa ordaindu izan dien aseguru-etxeak porrot egin eta gero. ONAKo zuzendaritzari zorra ordaintzeko eskatu diote eta, asteon, ELAgaz akordioetara hel-

tzeko saiakerak huts egin eta gero, salaketa sartu dute epaitegietan. Salaketagaz ONAK euren ordain-sarien "erantzukizun guztia" hartzea gura dute aurrejubilatuak.

Belgikako Apra Leven aseguru-etxeagaz lotu zuen ONAK zortzi aurrejubilatu hauen ordain-saria 2008an. Urtarrilean likidazio egoeran sartu zen enpresa, eta ordutik milaka aurrejubilatu daude ONAKo zortzi langile ohien egoera berean.

Enpresako zuzendaritzaren iritiz, auzia "Apra Leven eta aurrejubilatuaren artekoa" da. Azaldu dutenez, zorra aseguru-etxeak ordaindu beharko luke: "Guk ordaindu beharrekoa ordaindu genion Apra Leveni". ■ A.U.



Aurreko barikuan Ezkurdin egin zuten elkarretaratzea.

Jose Luis Zubillaga omendu dute Durangoko CCOOren lokallean



Durangoko CCOOren lokalaren parean egin zuten oroimen ekitaldia. Roberto Martín eta Jose Petite CCOOko ordezkariak "Zubi"-ren ibilbidea gogoratu zuten: "Langile eta sindikalista konbentzitu eta nekaezina zen". Poesia errezitaldia eta dantzak ere izan ziren. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Unai Sordo Euskadiko CCOOren zuzendari orokorra, Alba Gutierrez (Durangoko EB), Aitziber Irigoras Durangoko alkatea, Iñaki Totorikagena Iurretako alkatea eta Jose Luis Lizundia euskaltzaina. ■ J.D.



ELORRIO

Otadui beharrean, Mujika liberatuko dute udalean

Alkatea legebiltzarkide ere badelako hartu dute erabakia udalbatzarrean

EAJk alkatea beharrean alkatetordea liberatzea proposatu du, Ana Otadui "legebiltzarkidea delako". Otadui berak azaldu du, "hobe dela bi pertsona lanean izatea bakarra baino", eta udaletxean egongo dela herritarren beharrei erantzuteko, nahiz eta legebiltzarreko lanak denborakendu. Dedikazio osoa, beraz, Joseba Mujikak hartuko du, EAJren sei boto eta PPkoaren botoari eskerrak. Bilduk aurka bozkatu du, eta Idoia Buruaga zinegotziak adierazi du "ez dela ulertzekoa" EAJren erabakia, eta ez dutela jaso "hori arrazoitze azalpen nahikorik".

Informazio batzordeak uztailan zehar osatuko dira, baina buruak izendatu dituzte. Denak EAJkoak izango dira, eta Bilduk ere

Informazio batzordeetako lehendakari guztiak EAJkoak izango dira

Ohiko udalbatzarrak hilero izango dira; lehenengo eguaztenetan, 19:00etan

alde bozkatu du. Buruagaren esanetan, lehendakariaren bat hartzeko proposamena egin diete EAJri, eta aurrerantzean ere postura horretan mantenduko ei dira. Mujikak adierazi du, oraingoz ardura euren hartu behar dutela ikusten dutela. Udalaz kanpoko erakundeetarako gauza bera jazo da, Amakomunazgoaren kasuan izan ezik.

Udalbatzarrak hilero izango dira, lehen eguaztenetan, 19:00etan. Bilduk proposatua da, herritarrek parte hartu dezaten. PPko Garcia-ren ustez, "lehentasuna herritarren ordezkariak edukitzea behar dute, ez herritarrek". ■ M.Onaindia

Zengotitabengoari babesa, gose greban dagoela gogoan

Portugalera martxa burutu zuten 62 lagunek joan zen asteburuan



Lisboako kaleetan ere zabaldu zuten aldarrikapena martxako kideek.

Gose greban jarraitzen du Andoni Zengotitabengoa elorriarrak Portugalgo Monsanto kartzelan. Uztailearen 2an ekin zion protestari, bizi-baldintzak hobekuntza eskatuz. "Alabak normaltasunez besarkatu ahal izatea" du aldarrikapen nagusi, "urtean bi orduan soilik

besarkatu ditzakeelako", Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak dioenez. Diabetikoa da, bestalde, eta "orain azukre maila baxu dauka".

Hainbat herritarrek martxa egin zuten joan zen asteburuan Portugalera, elkartasuna adierazteko asmoz. Espetxeko zuzendaria-

gaz batu gura zuten, baina "jai eguna zuela-eta", gutuna utzi behar izan zuten eskaerekin. Gero, Lisboan elkarretaratzea egin zuten, zantzar eta guzti. "Esperientzia positiboa" izan ei zen.

Irailaren 12an eta 13an epaituko dute Zengotitabengoa. ■ M.O.

IURRETA

Alkateak dedikazio osoa mantenduko du

Alderdi eta zinegotzien esleipen ekonomikoak eta batzordeetarako dietak onartu dituzte

Alderdiak 276 euroko eta zinegotziak 76 euroko esleipen ekonomikoak zehaztu du udalbatzarako; baita 57 euroko batzordeetako bertaratze dietak ere. EAJk, PSE-EEK eta PPk egin dute alde; abstenitu egin da Bildu. Iñaki Totorikaguena alkateak jardun osoan jarraituko du.

Udalaz gaindiko organoetarako ordezkariak onartu dituzte

Aurrera egin dute hiletaz zibilen araudiak eta administrazio elektronikoa arautzeko ordenantzak

Udal ordezkari legez PSE-EEKo M^a Angeles Muñoz arituko da Bilbao-Bizkaia Ur Partzueragan eta Urkiola Landa Garapenerako Elkartearen Bilduko Zorion Agirrezabala. Maiztegi herri eskolan, berriz, Iñaki Gil (EAJ); Juan Orobiogoitian Amatzia Abasolo (Bildu); Iurreta Institutuan Alberto Borobia (PSE-EE) eta Haurreskolan Ignacio Toca (PP). Goiuria kulturguneko jarraipen batzordera Iñaki Gil eta Amatzia Abasolo joango dira, eta Jubilatuen Etxeko zuzendaritza batzordera Ainhoa Albizuri (EAJ) eta Alberto Borobia.

Ordenantza berriak
Behin betiko onartu dituzte, bestalde, administrazio elektronikoren ordenantza eta omenaldi zibilak egiteko araudia. ■ A.B.

'Danok dantzara' lanak iragarriko ditu jaiak

Durangoko Mikel Aldekoa-Otalorak irabazi du

Mikel Aldekoa-Otalora Txintxurreta gazte durangarraren *Danok dantzara* kartelak iragarriko ditu aurtengo Sanmigelak. Aurkeztutako 10 kartelen artean, botoen %25,6 jaso du 28 urteko gaztearen lanak; 250 botoetatik 64.

Jai Batzordekoen berbetan, "2.ak baino 30 boto gehiago lor-

tu ditu" irabazleak. Egileen zein herritarren parte-hartzeagaz "pozik" daude. Aldekoa-Otalorak 500 euroko saria lortu du.

Durangoko gazteak badu esperientziarik kartelak egiten. Iaz Mallabian ere bere kartela aukeratu zuten, eta Aretxabaletan ere lortu izan du saririk. ■ A.B.



Aldekoa-Otaloraren gurasoek eta ilobak hartu dute saria. A.B.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia

Euskal Okela

Carniceria autorizada

Antso Estegiz, 1

946 812 247

48200 DURANGO

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Inork ez dit esan ez denik posible

elespejodelcoaching.es

Oiz 6 DURANGO | 946 03 06 74

<http://elespejodelcoaching.wordpress.com/2011/03/03/limites-y-croancias/>

ABADIÑO



Saneamendu sarea eta lauzak berritu dituzte, besteak beste.

Eliza inguruko lanak, abuzturako amaituta

Traña-Matienako eliza ingurua eraberritzeko lanak datozen asteetan amaitutzat ematea da asmoa

Maiatzean, auzoko jaiak amaitzea-gaz batera, ekin zioten Traña-Matienako elizaren ingurua eraberritzeko obrari. Asteon galdetu diogunean Jose Luis Navarro alkateak adierazi duenez, lanak uztailean

Lasuen enpresak dihardu 171.000 euroko aurrekontua duten lanak burutzen

J.L. Navarro: "2009ko aurrekontuetatik gauzatzeko zegoen azken proiektua da"

zehar edo beranduen jota abuztu erdialderako gura dituzte amaitu.

Costrucciones Lasuen enpresak dihardu elizaren ingurua eraberritzeko lanak burutzen; 171.000 euroko aurrekontua bideratu du udalak lanotara.

Abadiñoko Independentienteak taldeko alkateak azaldu digunez, "2009 urtean udal aurrekontuan jasota eta gauzatzeko zegoen azkeneko proiektua" da hau. Urte hartako aurrekontuan jasota zegoen San Andres kaleko obra ere.

Abuztutik aurrera, oinezkoendako gunea izango da Traña-Matienako eliza ingurua, "saneamendu berritua, lorategiak eta harlauzak" eraberrituta. ■ I.Esteban

Abuztuaren 27ko Erregu Eguneko bazkaria

Abuztuaren 12ra arte eman ahaliko dute interesa duten jubilatutako abadiñarrek abuztuaren 27an Urkiolako Santutegian egingo duten bazkarian parte hartu ahal izateko izena. Halaxe eman du udalak jakitera.

Urkiolako ohiturazko hitzorduan parte hartu ahal izateko, 10 euro ordaindu beharko ditu lagun bakoitzak. Horrela, abuztuaren 27an, 10:30ean, autobusez abiatuko dira izena ematen duten abadiñarrak Urkiolara, eta bazkaritarako elkartu.

Udal arduradunek jakinarazi dutenez, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan eman daiteke izena bazkarira joateko. Bazkal aurretik, 11:30ean, ospatuko dute meza. ■ I.E.

MALLABIA

Auzoekiko hartu-emana eta gazteria indartuko dituzte

Euskara, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Batzordeari 'Gazteria' atala gehitu diote

Aurreko legegintzaldian legez, datozen lau urteetan ere bost batzordetan kudeatu eta eztabaidatuko dituzte herriko beharrezan anitzak. Horieta biko, ordea, atal berriak izango dituzte: Euskara, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Batzordeari 'gazteria' atala gehitu diote: "Gazteria jorratu beharreko atala dela deritzogu. Mallabia lako herrian batzorde berria sortzeari gehiegi iritzien genion, eta horregatik gehitu dugu batzorde horretara", dio Mila Mon-

Auzoen inguruko batzarrak auzoetan bertan egiten saiatuko dira; herritarrek parte hartzea ere sustatu gura dute

dragon alkateak. Auzoetako Batzordea zena, Herritarren Parte hartzerako, Komunikaziorako eta Auzoetako Batzordea izango da aurrerantzean. Ikuspegi horregaz, auzoen errealitatea ezagutzeko zein

auzoetarako hartutako erabakiak jakinarazteko batzarrak auzoetan egiten ahaleginduko dira. Aldaketa horiek aho batez onartu dituzte udalbatzarrean.

Bi alkateordeak, berriz, honako hauek izango dira: Unai Uzuriaga eta Koldo Pradera, biak Bildukoak. UEMako ordezkariak Belduko Xabat Areitourtena eta EAJko Itziar Garitagoitia izango dira.

Udalbatzarrak hiru hilerik behin izango dira, azken eguean, 19:00etan. ■ J.Derteano

OTXANDIO

Edalontzi ekologikoak erabiliko dituzte jaietan

Jai Batzordea eta ostalariak adostasunera heldu dira jaietan kristalezko ontzirik ez erabiltzeko

Ingurugiroarekiko jarrera ardurasua sustatzeko asmoagaz, ekimena adostu dute Jai Batzordeak eta ostalariak. Jai Batzordekoen arabera, jaiak irauten duten egune-

tan, taberna eta txosnetan kristalezko edalontzi eta ontzirik ez erabiltzeko konpromisoa hartu dute.

Horren ordez, berrerabili ahaliko diren plastikozko edalontziak egongo dira. Edalontzi horiek euro baten truke erosi ahaliko dira; goizeko 06:00etan basoa itzultzen dutenei 50 zentimo bueltatuko zaizkie. ■ A.M.

Edalontziak euro batean egongo dira salgai; taberna eta txosnetan egongo dira

IZURTZA

Aukeratu dute jaiak iragarriko dituen kartela

Eduardo Landia durangarrak aurkeztu duen kartela aukeratu du epaimahaiak jaietarako

Irailean ospatuko dituzten herriko jaiak iragartzeko udalak deitutako lehiaketara aurkeztu zituzten lau kartel proposamenetik Jai Batzordeko kideek aproposen iriztitakoa zein den jakinarazi dute.

Eduardo Landia durangarrak lehiaketara bidalitako kartela hautatu dute herriko jaiak iragartzeko. Asteon udalean azaldu dutenez, jai egitaraua jasoko duen

eskuorrian argitaratuko dute, datozen asteetan, kartel irabazlearen lana. Bigarren urtea da jaietako kartela lehiaketa bitartez hautatu dutena, eta lau proposamen jaso dituzte. ■ I.E.

Bigarren urtea da jaietako kartela hautatzeko lehiaketa burutu dutena; 4 jaso dituzte



Udalbatzarrak hiru hilerik behin izango dira, hileko azken eguean, 19:00etan.

Arriko Liburadenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
SALTSAN.COM

gremioen koordinazioa
urtiaga
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Dima Golf

PITCH & PUTT



Orain urte bat baino gehiagotik hona, golfean jolasten ikasteko aukera eskaintzen du **DIMA GOLF**ek, arin, atseginez eta merke, **Otxandiotik hiru kilometro eskasera**.

Praktikatarako Kantxa atsegin batean ikasten da makilak erabiltzen. **Goi mailako irakasleekin egiten den bi eguneko hastapen programari** esker edonork ikasi dezake bola jotzen, eta pilota txikia zuloan sartzearen plazera gozatzeko.

Gainera, **18 zulo Pitch & Putt** zelaian praktikan probatu daitezke trebetasunak, ikastaroaren lehenengo egunetik. **18 zulo eta 50etik 120 metrora**inoko distantziak dituen zelaia da, deneriko zailtasunekin, joko finkatzeko eta gozatzeko.

Asko eta asko dira dagoeneko zelai honetan gozaten diharduten bizkaitar, arabar eta gipuzkoarrak. **Euskal Herri osoan 18 zulo Pitch & Putt zelai bakarra dago**, eta berau Otxandio ondo-ondoan.

Adin eta izaera guztietako jendeak parte hartu du ikastaroetan, eta maiztasunez jokatzen dute Dima Golfen.

Zabaldu zenetik, 30 bat txapelketa eta lehiaketa egin dira beste Pitch & Putt zelai batzuekin batera. Dima Golfek bere zelaia ordezkatzeko duten kalitate oneko taldeak ditu beste klub batzuekin lehiatzeko.

AGEPP espainiar estatuko Pitch & Putt elkarte eta zelaien taldeak antolatzen duen **Kluben Arteko Urteko 7. Txapelketa Dima Golfen jokatuko da uztailearen 23an eta 24an**, punta-puntako taldeak etorriko direlarik Galiziatik, Kataluniatik, Asturasetik, Euskal Herritik,...

Uda honetan aukera paregabea duzu Dima Golfer hurbildu eta denona eta denontzat den kirol honetan jolasten ikasteko.

Helburua kirol hau edonoren neurriko bihurtzea da, denontzat eskuragarri, eta jendeak ondo pasatzea. Metodoa oso sinplea da: "Jolastuz ikasten da jolasten". Zelaia horrexetarako pentsatua eta diseinatua dago. Hortik aurrerakoa gogoia jartzea da, eta jolastea!



DIMA GOLF CENTER Km.38 Dima - Otxandio Errepidea (Dima gana)

www.dimagolf.com info@dimagolf.com Tlf. 94 404 61 47

BERRIZ

Udaleko batzordeak eta organoak osatu dituzte

Ordezkarien izendapenak eta alkatearen soldata eztabaidagai izan ziren

Joan den ostegunean, uztailearen 7an, ospatutako ez ohiko batzarrean onartu zen batzordeen osaketa. Deneriko organoetako kideak ere izendatu zituzten bertan; ez zen erabateko adostasuna lortu.

Guztira, sei batzorde egongo dira Berrizko Udalean, eta guztietan EAJkoak izango dira ordezkariak. Batzorde horien osaketa era-

Urtean 50.097 euro garbiko soldata jasoko du Isoirdek alkata lanak betetzeagatik

Guztira, sei batzorde egongo dira; EAJkoak izango dira batzorde guztietako ordezkari

bakitzerakoan desadostasunak sortu ziren; organo guztietarako EAJko hautagaiak proposatu zituen alderdi horrek—Ur Patzuergoa (PSE) eta Urkiolako Landa Garapena (Bildu) ezik—, eta Roland Isoird alkateak bere kalitateko botoa erabili behar izan zuen proposamenak aurrera egin ahal izateko. Bilduko Xabier Zalduak, berriz, batzordeen osaketaren "pluraltasun eza" salatu zuen.

Bere iritziz, onartu zen osaketak ez ditu maiatzaren 22ko hauteskundeetako emaitzak irudikatzen.

Bestalde, alkatearen erabateko arduraldia eta soldata mantentzea erabaki zuen bilkurak; soldataren ezarpenak ere eztabaida piztu zuen. Erabateko arduraldiarena aho batez onartu bazen ere, soldataren zenbatekoagaz ez ziren ados jarri; Zalduak soldata "gehiegizkoa" dela adierazi zuen, eta, bere alderdikoekin batera, aurka bozkatu zuen; PSEko Jose del Pinok, soldata "handia" zela iritziz arren, abstenitu egin zen. Isoirdek 50.097 euro garbi jasoko ditu urtean. ■ A.Maldonado

GARAI

Adjudikatu dute farolak aldatzeko egitasmoa

Uda ostean hasiko dituzte hiriguneko eta San Juan Momoitioko argiztapena hobetzeko lanak

Garaiko Udalak asteon esleitu ditu hiriguneko eta Momoitioko faroletan aldaketak egiteko lanak. 59.444 euroko aurrekontua izango du egitasmoak, eta Izarrak enpresak garatuko du.

Beharrak uda ondoren hasia itxaroten dute, iraila eta urria artean

San Juan Momoitio inguruan oraingo farolak kendu eta berriak ipiniko dituzte; herriguneko argiztapenaren kasuan, bonbila aldaketa egingo dute gehienetan, nahiz eta batzuk osorik aldatuko dituzten. Bi guneetan, kontsumo baxuko LED argiaren aldeko apustua egingo du udalak, adierazi digutenez.

Farolak jartzeko beharrak uda ondoren hasia itxaroten dute udal arduradunek, iraila eta urria artean. Azaldu dutenez, hiru aste edo, asko jota, hilabeteko iraupena izango dute lanak. ■ M.O.

DURANGALDEA

Udako jaietako berri anboto.org gunean

Uztailearen 22tik aurrera eskualdeko jaietako egitarauak eskuragarri egongo dira webgunean

Uda sasoiaren herri eta auzo asko biziberritu egiten dira. Eguzkia zeru urdina gobernatzen, egun luzeak eta argitsuak... sasoi aproposa dajai giroan entretentzeko. Abuztuan zehar Durangaldeko auzo eta herri askotan ospatzen dituzte jaiak eta, horregatik, www.anboto.org webguneak ospakizun horietako egitarauak eskuragarri ipiniko ditu.

Uztailearen 22tik aurrera Anbotoren webguneak atal berezia ipiniko du martxan jai horien informazio osatua modu errazean eskuratzeko. Horretara bideratutako atalean Durangaldeko herrietako izenak agertuko dira zerrendatuta, eta herri bakoitza-

ren barruan jaiak ospatzen dituzten auzoak. Gainera klikatzea nahikoa izango da informazioa eskuratzeko.

Durangaldean zehar ez ezik, inguruko herrietako jaietara ere mugitzen da jende asko. Horregatik, Amorebieta-Etxano, Ermua eta Bilboko egitarauak ere eskuratu ahal izango dira anbotoren webgunean. ■ J.D.

Atal berezia herriak eta auzoak agertuko dira; gainera klikatuta informazioa eskuratu ahalko da



www.anboto.org-ek atal berezia izango du abuztuan.

Itxiera fiskalari buruzko ikastaroa uda ostean

Urriaren antolatuko gura dute ikastaro hori

Durangaldeko Amankomunazgoak hainbat ikastaro prestatu ditu oporren osterako. Itxiera fiskalari buruzko ikastaroa CEBEK (Bizkaiko enpresarien Konfederazioa) elkarteak antolatuko du eta Aldundiaren eta Amankomunazgoaren laguntza du. Durangoko Behargintzaren eraikinean izango da ikastaroa.

Pertsona Nagusien Dinamizazio Saila, aldiz, Katalunia eta Costa Bravarako bidaia kulturala prestatzen ari da urrirako. ■ J.D.

CEBEK-ek antolatzen du eta Amankomunazgoaren eta Aldundiaren laguntza du

Ezpatadantzarien bilgune izan zen Garai joan zen zapatuan



Txelu Angoitia (Gerediaga elkarteak)

Durangaldeko 39. Ezpatadantzari Eguna ospatu zuten joan zen zapatuan Garain; 16 taldek parte hartu zuten. Guztira, 128 dantzari erakutsi zuten euren trebezia. Ezin ahaztu, ordea, hainbat txistulari eta laguntzaile ere bertan izan zirela, talde zabala osatuz.

Arratsaldean hasi zen jai-giroa kalejiragaz, eta gero etorri zen dantza saioa. Dantzari dantza osoa jorratu zuten, aureskurako indarrak gordez. 1967. urtean egin zen lehen Ezpatadantzari Eguna.

Hurrengo erakuntza

ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak

R.P.S. 21/406

A. Urreta podologoia

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Ainara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

TMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

Durangaldean labor

Abadiñon 243 ke detektagailu instalatu dituzte 180 etxetan

Suteen prebentziorako Atiempo enpresak 80 urte-rik gorako abadiñarren 180 etxe bisitatu ditu azken hileotan, eta 243 ke detektagailu instalatu ditu. Teknikariek etxeen % 17k gas-instalazioen aldizkako azterketa ez dutela pasatu azaldu dute, eta, oro har, etxeen % 67k suteak izateko "arriku nabarmenik" ez duela ondorioztatu dute. Larrialdietan zelan jokatu jakiteko argibideak eman dituzte.

TAO sistema eten egingo dute abuztuan

Abuztu honetan, aurreko urteetan legez, ez da TAO sistema martxan egongo Durangon. Duela bost urte abian ipini zuten aparkalekuak arautzeko sistema, eta ordutik abuzturo etenaldia egin dute. Durangoko udal arduradunek jakin eragin dutenez, gainera, Landako Guneko aparkalekua zarratu egingo dute abuztuan.



Margo lehiaketako lanak ikusgai Berrizen

Sanpedrojaien harira Berrizen egingo dako umeen margo lehiaketako lanak erakusketa batean batu dituzte. Erakusketa Berrizko Kultur Etxean ikusi daiteke martitzenetik ostiralera, honako ordutegian: 18:30etik 20:30era. Uztailearen 22ra arte egongo da zabalik erakusketa.

ZALDIBAR

Udako Sanandresak igarota, auzorik auzo doa jaia

Santa Marineko jaiak hasiko dira gaur Goierriin, arratsaldeko 18:00etan



Umeentzako ekitaldiak ez dira falta izan Sanandresetan. Delfin Zubizarreta.

Joan berri dira Udako sanandresak, baina jai-giroak aurrera jarraituko du Zaldibarren. Izan ere, Goierri eta Gazaga auzoen txanda dator orain.

Herriko talde eta elkarten ekintzek indarra izan dute Sanandresetan. Dena dela, asteburu honetan bada oraindik ekimenik: bihar mendibilaldi neurtua egingo dute, eta domekan argazki digitalen emanaldia eta sari-banaketak, 12:30ean.

Santa Marina, Goierriin

Gaur, 18:00etan, jaurtiko dute txapligua, baita Donien-atxa altxatu ere. 20:00etarako sardina-jana antolatu dute eta gauean V. Goierri Rock Festibala izango da, bolojokoa eta erromariaz gainera. Bihar, bakailao eta paella txapelketan elkartuko dira auzotarrak, goizetik. Domekan auzoko nagusiak omenduko dituzte, 13:00etan. Astelehenean, Santa Marina egunagaz amaituko dituzte jaiak; iluntzean marmitakoa jango dute, esaterako.

Gazagan Santiago eta Santa Anaren bueltan egingo dute jaia, ermitan bertan. ■ M. Onaindia.

Correosen ordutegi murrizketaren aurka

Zaldibarko Udalak sinadura-bilketarako kanpaina hasi du, Correos zerbitzuak ezarritako ordutegi murrizketaren kontra. "Aldaketa horrek zerbitzu publikoari kalte egin diola eta murrizketa horrek kaltea ekarri diela gure elizateko herritar guztiei" helarazi gura dio udalak posta kudeatzen duen enpresari.

"Neurri horregaz urrundu egin dira euren zereginetik", udalak oharrean dioenez

Gainera, "horregaz urrundu egin dira euren zereginetik", dio udalak oharrean. "Postabulegoa orain arte moduan zabaltzeko eta ordurik ez kentzeko eskatzen dugu udalak eta sinatzaileok". ■ M.O.

MAÑARIA

Amaiurko gaztelura eta aztarnategira bisitan

Uztailearen 23an 08:30ean aterako da autobusa Nafarroa aldera. Egun osoko egitaraua daukate

Nafarroako Baztanera egunpasa antolatu du udalak, uztailearen 23rako: besteak beste, Amaiurko gaztelua eta Elizondo bisitatu dituzte. Goizean, 08:30ean, Mañaririk iritenda; 10:00etan emango diote bisitaldiari hasiera.

Amaiurko gazteluaren historia eta Aranzadi zientzia elkar-teak azken urtean bertako aztarnategian burututako lanaz azalpenak emango dizkie bertaraten diren mañariarrei Aranzadi elkar-teko Juantxo Agirre Mauleonek.

Gaztelura oinez abiatuta, bertan topatutako harresi, dorre eta gotorlekuen aztarnen ikustaldi

gidatua egiteko aukera ere izango dute datorren zapatuko irteeran parte hartuko dutenek.

Autobusa eta hamaiketakoak ordainduko ditu udalak, eta bakoitzak bere poltsikotik ordainduko du bazkaria: Elizondon igaroko dute bazkalordua. Baztandik Durangaldera bueltan, Hondarribian egingo dute geldialdia. ■ I.E.

Amaiurko gazteluan Aranzadi elkar-teak burutu duen lanari buruz azalpenak emango dizkie Agirre Mauleonek mañariarrei

ATXONDO

Batzar irekia Hirigintza Planaren berri emateko

Aurrerapen dokumentuari urte hasieran eginiko ekarpenak nola barneratu diren azalduko dute

Datorren egunean, uztailearen 21ean, batzar irekia egingo dute Udaletxeko batzar aretoan. Bertan, Hirigintza Planaren garapenera berri emango dute. Urte hasieran aurrerapen dokumentua onartu zuen Udalak, eta azken hileotan ekarpenak egin dizkiote herritarrek.

Rosa Elizburu alkatearen berbetan, aurrerapen dokumentuan aldaketa berriak zelan txertatu diren herritarrei erakustea da aurrerapeneraren helburua. "Proposatutako aldaketak zelan barneratu diren erakutsi gura dugu horrela". Horrela, herritarren parte

hartzea kontutan hartu nahi izan du Udalak. Beraz, batzar irekia Udaletxeko batzar aretoan izango da, arratsaldeko 19:00etan. Aurkezpenaz gainera, planean sakontzeko materiala ere egongo da ikusgai. "Besteak beste, panelak egongo dira", dio alkateak. Elizbururen arabera, Hirigintza Plan "definitiboa" urrian aurkezteko asmoa du Udalak. ■ A.M.

Batzar zabala Udaletxeko batzar aretoan egingo da. 19:00etan hasiko da

Irailaren 13an jarri diete irteera data Anbotopekoei

Atxondoko Udalak eta Anbotope elkar-teak duten liskarrak oraindik dirau. Durangoko epaitegiak irailaren 13a ezarri dio elkar-teari lokaletik irteteko epe muga moduan. Arrazolako elkar-tearen eta udalaren arteko desadostasuna 2008tik dator. 30 urteko kontratua amaitu eta gero, ez berritzea eta elkar-tea lokaletik kaleratzea erabaki zuen Atxondoko Udalak; epaitegiaren arabera, udalaren aginduak ez du akatsik. Udalak jada aldeko hiru epai jaso dituela gogorazi du. Epaia horien ostean Anbotopek jarritako errekurtsioa ez zuen onartu epaitegiak. ■ A.M.



Bizkaiko Urtxintxa Eskola
ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO
IKASTARROAK



Matrikulazioa irailaren 1etik 30era
TITULAZIO OFIZIALAK eta gehiago

www.urtxintxaeskola.org
Tel: 94 432 04 45

- Astialdiko Begiralea **Durango**
- Jendarte Kultur Dinamizatzailea
- Kulturarteko Hezkuntza Aditua
- Astialdian • Guraso Eskola

- Astialdiko Zuzendaria
- Hezkidetzan Aditua
- Heziketa Premia Bereziak
- IKASTARO LABURRAK

BERBAZ >

“Bonbardaketa eta gero, Otxandioko etxe guztietan falta zen baten bat”

Duela 75 urte Otxandioko bombardaketa eta ondorengo urteak zelan bizi izan zituen kontatu digu Jon Lasuenek

Hamalau urte zeuzkan Jon Lasuenek Otxandio bombardatu zutenean. Kalean harrapatu zuen bombardaketak. Egun hura eta garai hurak zelan bizi izan zituen kontatu digu, las-ter ordutik 75 urte betetzear daudela.

Zelan gogoratzen duzu bombardaketa? Non zeunden momentu hartan?
Institutuan nembilen ni, Bilbon, eta oporretan Otxandiora bueltatu nintzenean harrapatu ninduen bombardaketak. Abioiak bi bider-edo pasatu ziren, eta gero bonbak bota zituzten. Nire anaia bi, aita eta hiru lehengusu hil ziren bombardaketan. Ni egunkaria

“Egunkaria erosten nembilela izan zen bombardaketa; aita eta bi anaia hil ziren”

erostera joan nintzen, eta bitartean bota zituzten bonbak. Gure aita udal-letxeko idazkaria zen, eta jai zeukalako basora buelta bat ematekotan ginen. Nire anaia bi eta aita ni egunkariagaz etortzeko zain zeuden. *Euzkadi* erosten genuen orduan. Altxamenduari buruz zer berri zekarren jakin gura genuen. Udaletxe ondotik etxera etorri nintzen, eta han egon ziren hildako guztiak lurrean. Dena apurtuta, zulatuta, poste guztiak lurrean... Desastrea zen.

Zure ezagun asko hilko zen...

Hil ziren gehienak Andikonakoak izan ziren. Gure auzoan ere jende nahiko hil zen; gazteak gehienak. Nire edadekoak, hiru behintzat bai, seguru. Nire anaiak eta lehengusuak ere ni baino gazteagoak ziren. Ez zirenak hil, kalean egon ez zirelako ez ziren hil. Orduan babeslekurik ez zegoen oraindino. Milizianoak hona uztaillaren 19an etorri ziren, eta gero militarrek ere etorri ziren. Nik uste dut aeroplanoak nahastu egin zirela. Plazan soldaduek formatuta zeuden, kamioekin-eta, frontoian eta plazan. Nik pentsatzen dut bonbak plazan bota gurako zituztela, eta nahastu-edo, haizeagaz mugitu-edo... Hegazkinak etorri zirenean jendeak kalera irten zuen ikustera, paperak botako zituztela pentsatuz, baina paperik ez.

Ondorengo urteak ere oso gogorak izango ziren.

Bonbardaketa izan zenean arma handirik ez zeukaten frontean; gero bai,



“Omenaldiak egin egin behar dira. Desastrea izan zen; hainbeste hildako... zertarako? Otxandio oso zigortua izan zen”

gero gehiago. Frontea martxoaren 31n apurtu zuten, eta orduan abioi italiarrek etorri ziren. Otxandioko etxe batzuk bombardatu zituzten, eta gero Durangora joan ziren. Ni orduan baserri batean nengoan, izeko baten etxean Bilbotik etorrita.

Bilbon zeunden?

Bonbardaketa eta gero Bilbora joan ginen ama eta bost neba-arrebak izeko batengana. Ez geneukan denok etxe batean jateko beste, eta banatu egin ginen; beste izeko baten etxera-

eta. Aita izaten zen gu mantentzen gintuena, eta aita barik... ahal zena egin behar. Nire arreba biak eta ni gazte hasi ginen beharrean. Hilean hamabost ogerleko ematen zizkiguten; behintzat, ogia erosteko lain.

Jende asko joan zen kanpora, zuen moduan, bombardaketa eta gero?

Gure moduan gutxi. Frontea apurtu arte gehienak bertan geratu ziren, eta gero ebakuatu egin zen herria, orain Afrikan-eta moduan; koltxoiekin-eta, ahal zutena hartu eta joan egiten

Jon Lasuen •

- 89 urte dauzka
- Otxandiarra da. Bonbardaketaren ondoren Bilbora joan zen bizitzera.

“Bonbardaketa eta gero Bilbora joan ginen, eta bost-zazpi urtean ez ginen herrira bueltatu”

ziren. Frontea jausi arte bertan egon ziren, baina familia gehienetan falta zen baten bat bombardaketatik. Etxe batean bi hil ziren, beste baten bat, plaza alboko etxe baten senar-emazteak eta seme-alaba bi...

Otxandio gaz hartu-emanu edukitzen jarraitu zuten?

Bost-zazpi urte Otxandiora etorri barik egon ginen. Salbokonduktoa, baimena behar izaten zen hona etortzeko, edo beste edozein herritara. Gobernuaren delegaritzak ematen zuen, eta trenean-eta eskatu egiten zuten gerra amaitu eta hurrengo hiru urteetan-edo. Bilbon geratu ginen, eta ni sastreria batean hasi nintzen beharrean, eta hantxe egin nituen 50 urte, jubilatuta arte. Bilbora ezkondu nintzen, eta Otxandiora udetan etortzen izan ginen, Sanjoanetarako. Orain ere horrela egiten dugu.

Jaietarako Andikona plaza berriztu eta eskultura ipiniko dute bombardaketan hildakoen omenez. Zelan ikusten dituzu memoria historikoa berreskuratze-ko ahaleginok?

Ondo dago hori. Horrela izan behar da: omenaldia egin egin behar da. Desastre bat izan zen; hainbeste jende hil... eta zertarako? Otxandio oso zigortua izan zen. Orduan irabazleak egon ziren, eta garaituak, asko kartzelara. Askorik egin barik. Ez gaude asko horri buruz berba egiteko moduan. Bonbardaketan bertan, 10-12 urteko neska-mutiko asko hil ziren. Adin bitarte batean oso jende gutxi dago Otxandiokoa. ■ A.Ugalde

**GURE AUKERAKO
IBILGAILU GUZTIEK
ERABATEKO BERMEA DUTE.**

ERANTZUTEN DUGU.

*Andonik
esana*

Andoni Baños,
Goursako Aukerako
Ibilgailuen arduraduna.



**RENAULT SCÉNIC
EXPRESSION**

**1.5 dCi 105zp. 2010. urtea
2013 rarte edo
80.000 kmra arteko bermea.**

15.900€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP Transferentziako gastuak barne 2011/08/31ra edo izakinak agortu arte balio duen eskaintza.
Ikustarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.



GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.goursaautoak.com

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

BBK live eta Coldplay

Metallica etorri zenetik BBK Live musika jaialdira joan barik nengoen. Urterik urtera, gero eta dezibelio gutxiagoko karteldegia osatzen zutela iruditzen zitzaidan. Aurten ere ez nuen joateko asmorik, baina lagun batek bere sarrera erosi arazi zidan, azken orduko konpromiso bat medio berak ezin zuelako joan.

Sarrera Coldplay kartel buru zuen egunerako zen. Zoritxarrez, ezin izan nuen Ken Zazpiren kontzertua ikusi, euren zuzeneko amaitu berritan heldu nintzelako bertara. Blondie-k benetan aho zapora ona utzi zidan. Eta hantxe geunden denok talde ingelesaren zain, arnasa hartzeko espazio justua geneukala. Zer egiten dut nik hemen? Pentsatu nuen; iruditzen zitzaidan hard rock eta heavy zaleek zeresan gutxi zutela han. Nahiko ezkor nengoen eta lagun bati mesedea egitearren dirua alperrik bota nuen sentzazioak barrua nahasten zidan.

Kontzertua hasi aurreko damua erabat desagertu zen berau amaitu zenean. Chris Martin abeslariak *frontman* handien dohai guztiak ditu. Berezko karisma horrek, bere mugimenduek, musika gorputzaren bidez transmititzeko ahalmenak, zaleekin sortzen duen hartu-eman hipnotizagarriak taldeko lider naturala bihurtzen dute. Hala ere, ezin daitezke gutxietsi gainerako taldekiak, denak ere goi mailakoak baitira.

Plagio kontuak direla eta egur dezente jaso dute aspaldian. Musikan aurreiritziak dituzten ni lako rockero handiuste eta ezjakinek ere badute eragina taldearen desprestigio prozesuan. Sekula ez dela berandu diote, eta Coldplayren musika defendatuz amaitu gura nuke gutun hau. Hainbeste milioi disko saldu izana ez da kasualitatea; musika erraz eta popularraren formula erabili dutela horretarako? Ez bata, ez bestea. Talentua dute. Plagioa? Munduan zehar zenbat talde ezezagunek erabili ote dituzte Coldplayren akordeak eta erritmoak euren abestietan?

Kepa Zenarruzabeitia (Durango)

Klik batean @



Biribilgune magikoa

Iurretan egin duten biribilgune berria martxan dagoenetik neure buruari galdetzen diot zelan demontre konpontzen ginen lehen semaforoagaz. Zelan ez genuen sustraitik erausten hainbeste eragozpen sortzen zituen tramankulua. Mesedez, horrelako errepide batean sekula ez dezatela berriro semafororik ipini!
(Alaitz González)

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Sindikalista eta politiko sumindua

Ezagun asko bezalaxe, ni ere suminduta nago nire alderdiarekin, hartu dituen erabakiak ikusita. Suminduta nago kapitalismo eta bankuekin, zikoiztasunarekin eta gizarteko bidegabekeriarekin. Suminduta, politikari batzuen ustelkeria eta politika ekonomiko eta enpresen jokaera batzuk ikusita, 5 milioi langabe ditugulako eta jende askok etxea galdu duelako. Suminduta, emakumeen aurkako tratu txarrak eta indarkeria ikusita.

PSEko eta UGTko kidea naiz, eta bizitza osoa daramat suminduta, mundu bidezkoago bat lortzeko borrokan.

Hedabideek agerian utzi dutenez, gizartean jendea ez dago pozik. Hala ere, egunetik egunera, gero eta jende gehiagok ematen dugu laguntza gauzak aldatzeko, pertsonen egoera hobetzeko, gizartean izandako lorpenak suntsitu nahi dituzten enpresen gehiegikeriak eta politika ekonomiko neoliberalak salatuz. Lanean aritzen gara arlo guztietan berdintasuna lortzeko. Baina ez da erraza, eta emaitza ez da berehalakoa.

M15n proposamen asko bat datoz gure ideiekin, baina hasierako ikuspegia ez

Horregatik, sumintzen naiz, norbaitek nire lana edo kideena zalantzan jartzen edo gaitzes-ten badu. Horien ustez, hauxe da nire delitua: nire lanarekin eta borroka txikiarekin "sistema" legitimatzen ari naiz. Antza, gure ekintzekin, parte-hartzearekin eta ideologiarekin, boteredunak legitimatzen ditugu. Parte-hartzea taldean eta batasunaren indarrean oinarritzen delako. Suminduta nago, batzuek ahaztu dutelako borrokan inorez dela alferrikakoa.

M15 mugimenduaren proposamen asko bat datoz gure ideiekin. Baina hasierako ikuspegian ez gatoz bat: benetako demokrazia bermatzeko, batu behar dugu.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko uztailaren 15a - 10. urtea - 424 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

EMANALDIAK > ELORRION

Antzerki klasikoa, musika emanaldi bi eta zirku garaikidea eskaintzen ditu, besteak beste, asteburu honetan eta hurrengoan **Musikairek Elorrion**

Uztailaren 15ekoa da Musikaire jaialdiko asteburu honetako antzerki eta zirku emanaldietan lehenengoa. Guztira, dozena bat kultur emankizun ekarri dituen Musikaire jaialdia proposamen interesgarriekin ixteko aukera dakargitu, asteburu honetan eta hurrengoan, Elorrioko jaialdiak.

Uztaileko jaialdian, besteak beste, Euskal Herriko Markeliñeren proposamena zein Kukai, Oreka Tx eta Amaren Alabak taldeen elkarlanaren emaitza izan ditugu gozagai. Datozen egunetan, Valentziako eta Gaztela Leongo talde biren antzezlanak eta Euskal Herriko konpainia baten zirku garaikidea ditugu aukeran.

Orain bi urte aurkeztu zuten eta urteotan Espainiako hainbat antzerki jaialditan sariak jaso dituen Pelmanec konpainia valentziarraren lana da gaur gauean, Musikairen izango duguna; datozen asteetan Frantzian, Nafarroan, Madrilen eta Bartzelonan eskainiko duten *Don Juan memoria amarga de mí*. Antzezle bakarra –Miquel Gallardo– eta tamaina handiko hiru txotxongilo ditu protagonistak.

Bizi den garaiko arau etiko eta erlijioso guztiak apurtzen dituen eta gazterik hiltzera kondenatuta dagoen Don Juanen mitoan oinarritutako istorioa da Elorrion gaur ikusgai izango duguna. Beragandikihe-sean doan heriotzaren aurrean Don Juan-

Antzerkia, zirku garaikidea eta musika kulturen jaialdian



ekhartzen duen jarrera kontatzen du obrak, Tirso de Molina, Zorrilla, Molière edo Palau i Fabrerren testuetan oinarrituta.

Antzerki klasiko emanaldia da, berriz, uztailearen 16an, 22:30ean, Elorrioko plazak hartuko duena: Gaztela Leongo Morfeo Teatro-ren *El sombrero de tres picos* istorio korapilatsu eta barregarria.

Familia osoari zuzenduriko eta Euskal Herrian sorturiko zirku garaikidea, domekan

Datorren asteburuan, musika emanaldi bik emango dute 2011ko Elorrioko Musikaire amaitutzat. Aurretik, baina, bariku, zapatu eta domeka honetan, badago zer gozatua Elorrion: familia osoari zuzenduriko eta Euskal Herrian sorturiko zirku garaikide ikuskizuna ekarriko du Circus-tanzia taldeak, esaterako, domekan. ■ I.Esteban.

Afrikan erroturiko doinuen eta jazzaren iturrietatik edandakoa

- **Mulatu Astatke**
- Uztailearen 22an, 22:30ean
- Elorrioko plazan



Jazz musikari etopiarren emanaldia jasotzen du, uztailearen 22rako, Elorrioko Musikaire jaialdiaren zuzeneko eta haizetarako musika eskaintzak.

Londresen, eta 1960ko hamarkadan New Yorkeko jazz klubetan ikasitakoa da Astatke. Duke Ellington lakoekin AEBtako jazz, funka edo Karibeko doinuak zein erritmo latinoak eza gututa, 70eko hamarkadan egin zuen Mulatu Astatkek buelta Etiopiarra; bere jatorriko lurreko doinuetara, folkera.

Testuinguru horretan sortu eta garatutakoa da uztailearen 22an Elorrion emanaldia eskainiko duen Mulatu Astatke-ren Afro-jazza, "Ethio-jazza": tradizioetik jasotakoan oinarrituz, bide berriak zabaldu guran eta e-estruktura harmoniko berriak jorratuz jardun izan du. Doinu instrumentalak eskainiko ditu Elorrioko plazako kontzertuan.

Etiopiako tradizioeko instrumentuak aztertzen darrai Astatkek gaur egun, eta baita zinemarako doinuak sortzen ere.

Kletzmer musika dantzagarri eta alaia, Amsterdamdik plazara

- **Amsterdam Kletzmerband**
- Uztailearen 23an, 22:30ean
- Elorrioko plazan



Zazpikote honen musikak emango du aurtengo Musikaire jaialdia amaitutzat: saxo, perkusio, tronpetak, tronboi, klarinete eta akordeoi doinuen uztarketak. Balkanetako, Errumaniako zein Turkiako kletzmer doinuak ekarriko dituzte Europa iparraldetik. Herbeheretako hiriburuan, Amsterdamen, 1996an sortutako taldea da Kletzmerband hau.

Musikariek eurek esana da Kletzmer musikaren zale puritek ez dutela egiten dutena gustuko izango. Jaia dira kontzertuak; doinu alaien dantza.

Uztailean Belgikan kontzertuak eskaini eta gero datoz Elorrioko Musikairera, Budapestera doaz abuztuan, eta Alemaniako eta Herbeheretan hainbat zuzeneko eskainiko dituzte datozen hilabeteetan.

Aurten kaleratu duten *Katla* izeneko diskoak Alemaniako musika kritikaren saria jaso du. Amsterdam Kletzmerband taldekoen berbetan, ska zein hip-hop doinuek ere badaukate lekuri euren sorkuntzetan.

PINTURA > ERAKUSKETA

Aerografoagaz osaturiko lanen bilduma Jai Berrin

Kurutziaga margo akademiako Juan Azurmendi irakasleak osaturiko musikarien erretratuak ikusgai daude Durangoko Jai Berri tabernan



Durangaldean aerografia lanak egiten dituen bakanetarikoa da Kurutziaga margo akademiako Juan Azurmendi irakaslea. Heavy musikaren zalea izanik, aerografiagaz landutako gustuko musikarien erretratuak bildu ditu Jai Berri tabernako erakusketan; ACDC-ko Angus-en erretratua, kasurako.

Askotariko euskarriak margotu daitezke aerografia teknika honez: Azurmendik, besteak beste, motorrak, motorretarako kaskoak eta gortinak margotu izan ditu. Estatu Batuetatik ekarritako

Askotariko euskarriak margotu daitezke aerografia teknikagaz

Internetean ere ikusgai ipini ditu Azurmendik aerografia lanak

zaletasuna dela kontatu digu Juanek: han, hozkailuak eta komunak ere aerografiagaz margozten ei dituzte; "kustomizatu".

Egiten zituen maketetako figurak margotzeko ekin zion duela hamabost urte inguru aire konprimatuagaz eta pintura bereziagaz aerografoa erabiltzeari Kurutziaga akademiako irakasleak.

Izurtzan daukan tailerrean egiten ditu Juan Azurmendik aerografia lan gehienak: azaldu digunez, konpresoreak zarata handia ateratzen du. Durangoko Kurutzia-

gako tailerrean, bestalde, beragaz aerografia teknika ikasten hainbat lagunek dihardu.

Internetean ere ikusgai dauka Juan Azurmendik aerografiagaz egindako hainbat enkargu eta lan: www.aerografiakurutziaga.blogspot.com helbidean.

Durangoko Jai Berri tabernako erakusketan bildu dituen lanak salgai daude. Orain, tailerrean, David Boweyren zuri-beltzeko erretratua lantzen dihardu. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Libe Mimenza
Kazetaria

Ametsak ikutu ere ez!

1980ko hamarkadatik hona aditzen dira eskualdean gune askeen taupadak. Okupazioak, asanbladak, autogestioan oinarritutako proiektuak. Garai hartan edozer zen berritzailea eta iraultzailea; egun aldiz, nostalgiko, idealista edo utopiko deitzen zaituzte amestera ausartzearen.

Ametsen inflazioak enbarazu egiten die kultura akzio bihurtzen dabilzane. Ez dute oztoporik nahi bidean, herri kultura baino nahiago dute nazioarteko merkataritza bera kultur produktu bihurtzea. Kultura... zer hitz merkea.

Etekinak besterik ikusi ezin dituztenek, kultura deuseztatu nahi dutenek, ez dakite amets egiten. Eta gune askeetan sortzen diren ametsen geziek zulatzen dute beraien boterea.

Kultura sorkuntzatik abiatzen baita. Eta sortzea askea da, loturarik gabeko artea. Itsu, gor, mutu eta lotuta nahi gaituzten minbizi terminala eragiteko bidea da askatasunetik abiatutako kultur produkzioa.

Zuk ere aditu al dituzu kultur taupada horiek? Mamuak, piratak, sorginak, apoak, deabruak... Benetan ez dituzu Durangaldeko ametsen fabriketako taupadak aditu?

Gaztetxea gure bizitza askatzen duten alternatiba kultural, sozial, politiko eta kolektiboak garatzen dituen gune askea da. Eta Bilboko Kukutza zinez ereduragarria da bide horretan. Kukutza erasotzen badute, denok gaude beraien jomugan.

Errekaldek ez ditu etxeak behar; Kukutza behar du. Bihar manifestazio internazionala egingo da Bilbon eta etzi, kulturterroristen aurkako borrokarekin jarraitu beharko da. Sortuz, sortuz eta sortuz. Espekulatzaile(e) rotuekez dituzte inoiz gure ametsak erosiko.

ZINEMA > DURANGON

Zinema klasikoa liburutegian, uztaileko martitzenetan

Uztailaren 19an 'El topo' eta 26an, 'An American in Paris' filmak

Uztaileko martitzen iluntzetan, 19:00etan, zine klasikoaz gozatze-ko aukera eskainiko dute Durangoko Udal Liburutegian. Joan zen astean, Robert Bresson-en *L'argent* filmaren inguruan burutu zuten lehenengo saioa. Aste honetarako, martitzenerako, uztaileko zineklubaren bigarren hitzordurako, David Lynch-ek 1977an ekoizturiko *Eraser Head* filma aukeratu dute liburutegian.

Jodorowskyk 1970ean idatzi, zuzendu eta antzezturiko 'El topo'

Uztaileko beste bi martitzenetan, zinemagintzako klasiko bilakaturiko beste bi film eskainiko dituzte Durangoko Liburutegian: Alejandro Jodorowskyk 1970ean idatzi, zuzendu eta antzezturiko *El topo*; eta bigarren mundu gerraren ostean kokatu-

Zuzendari onenaren Oscar saria jaso zuen filma, zikloa ixteko

tako Vicent Minelliren *An American in Paris* pelikula izango dira, hurrenez hurren, uztailearen 19an eta 26an ikusgai. 1951n, AEBetan ekoizturikoa eta zuzendari onenaren Oscara jasotakoa da zikloa itxiko duen filma. ■ I.E.



Uztailaren 19an emango dute Durangon 'El topo'.

Ibero Cruceros-en laguntzarekin



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

UDAKO BETTERAPENAK

eta ehunka itsas bidaiak
oparitzen jarraitzen dugu



chaiselongue sofa

+

bi lagunentzako
itsas bidaiak opari

Ekolarruz eginiko chaiselongue sofa. % 100 garbigarria.
Jesarleku irristagarriak. Buruko etzangarriak. Ezkutuko bi pouff besoetan.
Chaiselongue altxatuta kutxa ere badu. Zuri eta moka koloreak aukeran.

895 €



irailaren 14ra iraungo du beherapen kanpainak, edo izakinak amaitu arte

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera)
Urbitate poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00
www.bautistamuebles.com

DANTZA > JAIALDIA

Indonesiako kultur aniztasuna islatuko du Durangoko folk jaialdiak

Uztailaren 23an, 22:00etan, Andra Mariko elizpean eskainiko du Indonesiako hiriburuko Krida taldeak dantza emanaldia



Musikari dagokienez, metalak eta gong txikiak uztartzen dituzte Krida taldekoek euren emanaldietan, eta Andra Mariko emanaldian ere izango dira entzungai.

Uztailaren 23ko saioan, Durangoko Kriskitin dantza taldeak ere hartuko du parte. Euskal dantzak eta musikak plazaratzeko helburuz, orain hamaika urteetik antolatu du 1987an sortu zen Kriskitin taldeak Nazioarteko Folklore Jaialdia, besteak beste, "kulturartekotasuna lantzeko" helburuagaz jaio baitzen.

Uztailaren 23ko saioan, Durangoko Kriskitinek ere hartuko du parte

Hamaika urte daramatza Kriskitinek uztaileko emanaldiok antolatzen

Dantzaren eta musikaren bitartez, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera eduki dute durangarrek zein bisitariak azken urteetan Udako Folklore Jaialdian.

2000. urtean lehenengoz ospatu zutenetik, uztaileko hitzordu guztietan bete da Andra Mariko elizpea dantza eta musikazalez. Beste horrenbeste desio dute antolatzaileek aurten. ■ I.E.

Durangoko Kriskitin dantza taldeak gonbidatuta dator Jakartako unibertsitateko taldea, eta Uda Klean Bizi jaialdiaren barruan eskainiko du Indonesiako tradiziozko dantza emanaldia; uztailearen 23an, Andra Mariko elizpean.

Indonesia osatzen duten 14.000 irlen ispilu da Krida dantza taldea

Azken urteetan legez, Portugalera Nazioarteko Folklore Jaialdiaren laguntzagaz hitzartutakoa da uztaileko Durangoko emanaldia; aurreko egun bietan Berrizko frontoian izango direnak legez.

Indonesiako Yakarta hiriburukoa da uztailearen 23an Durangon izango den Krida dantza taldea: "Indonesia osatzen duten 14.000 irla eta irlatxoren ispilu, adierazle" ei da Krida taldea.

Dantza lako adierazpen artistikoak, "indarrikusezinekin", espiritualekin, harremanetan jartzeko bide legez ulertzen dituzte han.

Europako ekialdeko dantza tradizionalak Berrizko frontoian

Euren herrialdeko dantza eta kanta tradizionalak gordetzeko helburuz diharduten taldeak dira uztailearen 21ean eta 22an Errusiako federazioaren parte den Udmurt errepublikatik eta Serbiatik Berrizera datozenak.

Jaioterriko bizimoduko uneak, errituak eta jaiak irudikatuko dituzte Udmurteko dantzariak, uztailearen 22an, 20:00etan, Berrizko frontoian eskainiko duten emanaldian.

Bereziki zaindutaok eta eskuz eginikoak dira Ural mendien mendebaldeko herrialdeko dantzari hauek erabiltzen dituzten jantziak.

Berrizko frontoian euren herrialdeko dantzak erakustera etorriko dira, uztailearen 21ean, 20:00etan, euren herrialdean ere oso ezagun eta arrakastatsu diren Belgradoko Simionov taldeko dantzariak ere.

Antzinako Europako ohituren eta ekialdeko kulturen eragin nabaria duten tradizioak ekarriko dituzte Durangaldera serbiarrek.

Dantza klasikoak eta, aurkezpenean esaten duenez, batez ere energia handia eskaintzen dute herrialdearen historiako aniztasunaren isla diren dantzetan.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

eskatu ezazu **menu BONOIA**

ordaindu 9 menu eta 10 jan

1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10. dohainik

ABUZTUAN ITXITA EGONGO DA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net

JIM ALTXORRAREN UHARTEAN
Gorakada Teatro
Udaletxe plaza
Uztailak 16 • 19:00

TAL COMO SOY - Pere Hosta
Etxezarreta Parkean
Uztailak 21 • 21:00

POSTAL EXPRESS - Pere Hosta
Merkatu plazaren inguruan
Uztailak 23
12:00etan
13:30ean

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

GARAI

OTXANDIO

2011

JAIAK

MALLABIA

MAÑARIA

Otxandioko JAI EGITARAUA

UZTAILAK 16, ZAPATUA Gazteen Eguna

14:30etan: Gazte bazkaria, herriko plazan.

17:00etan: Gazteen arteko olinpiadak.

19:30etan: Herriko txistulariekin kalejira.

20:00etan: Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, herriko plazan. Giza Eskubideen Aldeko Udal Batzordeak deituta.

21:00etan: Txupinazoa. Azken legegintzaldi bietan alkatetzan lanean jardun duen Aritz Otxandianok jautiko du.

21:05etan: Danborrada, Otxandioko Musika Bandagaz.

23:30etan: Kontzertua: Su Ta Gar eta Jare. Gero, Izargi taldeagaz erromeria.

UZTAILAK 17, DOMEKA

07:30etan: Diana eta kalejira.

08:00etan: Sokamuturra.

12:00etan: Soinubilen eskutik Herri Kanta Eguna: "Kalean gora, kalean behera, lagun artean kantari".

19:00etan: Ohiko Salve Regina abestuko dute, Santa Maña elizan.

19:45etan: Plaza dantzak, ikuskizuna Urduri dantza taldearen eskutik, plazan.

22:30etan: Erromeria: Lisker taldea.

UZTAILAK 18, ASTELEHENA Santamaña Eguna

11:30etan: Herriko Bandagaz kalejira.

12:00etan: Meza nagusia Santamañaren omenez; Oihandi abesbatzak parte hartuko du.

12:30etan: Txistulariekin kalejira.

13:00etan: Urduri dantza taldea.

17:30etan: Pilota partidak, Mainondoko frontoian. Doan. Euskal Herriko selekzioagaz

nazioarteko txapeldunak jokatuko dute: Itsaso Pradera-Laura Saez / Amaia Irazustabarrena-Ane Itsasmendi. Gero, Bertso-pilota:

1) Mikel Goñi-Oier Jaio (Botillero: Sebastian Lizaso).

2) Fernando Arretxe-Rober Uriarte (Botillero: Andoni Egaña).

19:45etan: *Charabia* antzezlan (El Negro y El Flaco), plazan.

22:30etan: Erromeria: Luhartz.

UZTAILAK 19, MARTITZENA Umeen Eguna

11:00etan: *Circomotik*: zirkuan oinarritutako umeentzako parkea.

12:00etan: Arimen meza.

12:30etan: Iluntxo pilota eskolaren partidak.

17:00etan: Tute, mus eta briska txapelketa.

18:15etan: Txan Magoaren ikuskizun berria umeentzat.

22:00etan: Umeentzako pelikula plazan, Gazte Asanbladak eratuta (eguraldi txarragaz Gaztetxean).

UZTAILAK 20, EGUAZTENA

17:00etatik 20:00etara: Etxerateg antolatutako *Km 0: dispersioa kale-erakusketa*, Bolalekuan.

Eguaztenetik barikura bitartean.

22:00etan: Etxerateg eratuta, *Sagarren denbora* filma gazte eta helduentzat, plazan (eguraldi txarragaz Gaztetxean).

UZTAILAK 21, EGUENA

22:00etan: Mirugainek eratuta filma gazte eta helduentzat, plazan (eguraldi txarragaz Gaztetxean).

UZTAILAK 22, BARIKUA

19:45etan: Ez ohiko udal bilkura: Andikonako bonbardaketari buruzko adierazpen instituzionala.

20:00etan: *Gerra zibila Otxandion* liburuaren aurkezpena, kultur etxean.

22:30etan: *Andikonako bonbardaketa gogoan* 75. urteurreneko ikus-entzunezko ekitaldi berezia, Andikona plazan. Herritarren parte-hartzeagaz grabatutako film laburra proiektatuko da.

23:00etan: Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta Nika Bitchiasvili musikariak eta Traspasos dantza taldearen partaidetza bereziagaz ekitaldia, Andikona plazan.

UZTAILAK 23, ZAPATUA San Martin Eguna

09:00etan: Arrantza txapelketa, Mataderoan.

12:30etan: Meza, San Martinen.

13:30etan: Bentzaharrako mutiko alaiak fanfarreagaz, San Martinera.

14:00etan: Paella txapelketa San Martinen, bolo txapelketa bolaleku berriztuan, trikitalariak...

19:45etan: Bentzaharrako mutiko alaiak fanfarreak herriko bazterrek alaituko ditu. Ondoren, ikuskizun xumea, herriko plazan.

23:30etan: Kontzertuak: Disorder's eta The Sugarballs taldeak. Gero, Tximeleta taldeagaz erromeria.

UZTAILAK 24, DOMEKA

12:00etan: Meza nagusia.

13:00etan: Andikonako bonbardaketaren oroimen ekitaldia. Gero, ohiko limonada Otxandioko eta Aiarako bandek lagunduta, plaza nagusian.

18:30etan: Anje Duhalde eta Pantxoa eta Peio, plazan.

23:00etan: Erromeria: Orotz taldea.

01:30etan: Agur Santa Marina abestiagaz jaien amaiera.

Santamaña
jai zoriontsuak
opa deutsueguz!



Otxandioko Udala

Jaiari ekiteko, Gazte Eguna

Bazkaria egingo dute bihar, eguerdiko 14:30ean



Bihar, uztailearen 16an, hasiko dira jaiak Otxandion, eta egitaraua zabaltzeko Gazte Eguna eratu dute; gazterien indar eta freskotasunagaz ekingo diote aurten, beraz, jai-giroari.

Txupinazoa iluntzean izango den arren, eguerditik aurrera elkartzeko deia egin dute. 14:30ean gazte baz-

23:30etik aurrera, kontzertuekin gozatu ahalko dute, Su Ta Gar eibartarrak kartelburu direla

karia prestatuko dute Herriko plazan, eta arratsaldeko 17:00etan olinpiadekin jarraituko dute.

Otxandioko gazteentzako urte berezia izan da honakoa, Gaztetxeak 10 urte bete ditu-eta.

21:00etarako aurreikusitako txupinazoa; azken zortzi urteetan alkatea izan den Aritz Otxandianok jaurtiko du. Aurretik, baina, txistularien kalejira eta presoan aldeko elkarretaratzearen txanda izango da.

Danborrada

Jaiak ofizialki hasita, danborrada eskainiko du herriko Musika Bandak. Gauean, 23:30etik aurrera, kontzertuekin gozatu ahalko dute, Su Ta Gar eibartarrak kartelburu direla. Jare taldeak ere joko du eurekin.

Egunari amaiera emateko, Izargiren erromeriak dantzara gonbidatuko gaitu.

Egunpasarako egitaraua umeentzat

Uztailearen 19a egutegian ondo bereiztuta edukiko dute Otxandioko haurrek. Izan ere, horixe da eurentzat beren-beregi prestatutako eguna.

Goizeko 11:00etan zirkuan oinarritutako parkea izango dute elkargune. Gainera, 12:30ean Iluntxo pilota eskolakoek partidak jokatuko dituzte.

Arratsaldean, berriz, Txan Magoak bere magia ikuskizun berria ekarriko du, 18:15etik aurrera. Gauean ere ez da ekintzarik faltako: Gazte Asanbladak umeentzako pelikula bat emango du plazan, 22:00etan. Euria eginez gero, Gaztetxera lekualdatuko dute.

Bonbardaketa oroimenean



75 urte beteko dira aurten frankistek Otxandio bonbardatu zutela, jai-giroa bete-betean. Uztailearen 22an izango da urtemuga, eta egun horretaz gainera, 24an ere oroimen ekitaldia egingo dute. Lehenengo biderrez, instituzionala izango da ekitaldi hori.

Hilaren 22ko ekitaldiak Andikona plaza eta Nestor Basterretxearen eskultura inauguratzeko aprobetxatuko dituzte. Ikus-entzuzkoak, musika eta dantza batuko dituzte ekitaldi berezi batean; aurretik, liburu-aurkezpena eta adierazpen instituzionala egingo dituzte.

Taberna LORA
Artekale 18 Tel. 677 568 580 Otxandio

Rosa Mari Estankoa egunkariak aldizkariak
Plaza Nagusia 9 • Otxandio • Tel.: 945 45 00 33

Jon Soloeta Huri-Barrena jatetxea
Huribarrena kalea, 8 48210 Otxandio (Bizkaia) Tel.: 945 45 01 25

KOROSTONDO janari denda
Artekale 19 OTXANDIO Tel.: 945 45 00 94

KOSKA TABERNA
Tel: 945 46 14 80 Plaza Nagusia, 6 OTXANDIO

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaillea:

Haitz taberna
Artekale 32 Tel.: 945 46 14 26 OTXANDIO

Gure etxea jatetxea
eguneko menua eta karta
Urigoiena 13 - 945 45 02 00 - Otxandio



ETXEBARRI NEKAZALTURISMOA

Antzinako jauregia. 6 logela bikoltz ditu bakoitza bainugela batekin, ile-lehorgailu eta telebistarekin, gela horietako bat ezinduentzako egokiturik dago. Apopiloentzako egongela, telebista eta mahai-jokoekin. Sukaldea eta garbigailua erabiltzeko eskubidea. Aparkamentua eta lorategia, barbakoa, mahai eta jesarlekuekin. Wi-fi a dohainik.

Olaeta - Otxandio (Bizkaia) • Tel.: 945 450 123 • Mug.: 676 94 75 23

danoena taberna
jai zoriontsuak denoi
plaza nagusia 5. OTXANDIO Tel.: 945 45 02 48



URREJOLA
okindegia

ale eta ongarrien biltegia

Artekale 31
Tel.: 945 45 00 93
Otxandio



Durangaldeko usaina ezin dizugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko, ...

anboto www.anboto.org



KERISARA BASERRIA

NEKAZALTURISMOA

Kerisara auzoa, 2 - Otxandio

JAIONE AJURIA Tel.: 945461412
OTXANDIO - BIZKAIA Mug.: 605771479

H **Gaztañeta** **U**

arategia urdaitegia



Artekale, 25 OTXANDIO - Bizkaia
Tel.: 945 45 08 46

Anje Duhalderen kontzertua plazan

Pantxoa eta Peio ere zuzenekoa eskainiko dute

Uztailaren 24an, 18:30etik aurrera, Anje Duhalde eta Pantxoa eta Peio zuzenean ariko dira plaza nagusian. *Bakezaleak* edo *Nigarra begian* lako kantu ezagun eta hunkigarriek osatuko dute errepertorioa.

Gaszte Eguneko kontzertuez gainera, Lisker eta Luhartz taldeek ere errome-

ria bana eskainiko dute uztailearen 17an eta 18an, hurrenez hurren.

Uztailaren 23ak, berriz, erromeria zein rock zaleen

gustuak aseko ditu: lehenengo Disorders eta The Sugarballs igoko dira ohol-tzara; dantzarako gonbita Tximeletak egingo du.



Rock doinuak dakartzate Disorders-ek eta The Sugarballs-ek

Pilota eta bertsoa bikotea osatuz

Bikoteen botillero izango dira Lizaso eta Egaña binakako lehian

Pilotarien eta bertsolarien uztarketak formula eraginkorra osatzen du entretenimenduari dagokionez. Gero eta herri gehiagotan ikusten dira halako ekimenak, eta Otxandion ere seguru ikusmina sortuko duena. Gainera, doakoa da.

Uztailaren 18an, 17:30ean, Mainondo frontoian ondoko desafioa

jokatuko dute. Gorriz ariko dira Mikel Goñi ornoztarra eta Oier Jaió atxondarra; aholkulari Sebastian Lizaso bertsolaria izango dute. Bikote urdina Fernando Arretxe luzaidarrak eta Rober Uriarte abadiñarrak osatuko dute, botillero Andoni Egaña dutela. Osagai horiekin ikuskizuna segurtaturik dago.

San Martin egunean ermitari bisita

Otxandioko herrigunetik gertu dago San Martin ermita, eta uztailearen 23an santuaren eguna bertan ospatuko dute, tradizioari eutsiz. Mezaren ondoren, Bentzaharrako Mutiko Alaiak fanfarrearekin joango dira San Martinera. Oraintsu eraberritu duten inguruan paella eta bolo txapelketak egongo dira, besteak beste. Bentzaharrako Mutiko Alaiak herriko plazan ere eskainiko dute ikuskizuna.

LORENZO CUBERO

Eraikuntzak eta erreformak

Ekohareatzaile zerbitzua



Garaiko JAI EGITARAUA

UZTAILAK 23, ZAPATUA

18:00etan: ASTOPROBA ERAKUSKETA
 1. Igor Otaolea 2. Urkiaga aroztegia
 3. Maiora elkarte 4. Vitorio Celaya
22:00etan: BERTSO SAIOA
 - Jone Uria - Julio Soto
 - Arkaitz Estiballes - Unai Iturriaga
 Gai jartzailea: Natxi Aranburu

UZTAILAK 24, DOMEKA

14:30ean: JUBILATUEN BAZKARIA
20:00etan: DONIEN ATXA jartzea. Ondoren, EZPATADANTZARIEN SAIOA
23:00etan: Erromeria ANSORREGI taldeagaz

UZTAILAK 25, ASTELEHENA

10:30ean: txistulari, dantzari eta agintarien KALEJIRA
11:00etan: MEZA NAGUSIA San Migel Elizan
 Ondoren: PROZESIOA Elizabarriraino apostoluari omenaldia Agintariena eta Gernikako arbola dantzatzuz
 Ondoren: EZPATADANTZARIAK
18:00etan: MERINALDEKO ERREGELA ERAKUSTALDIA
22:00etan: Erromeria LAJA II, NARBAIZA eta LUTXURDIO taldeekin

UZTAILAK 26, MARTITZENA

10:30ean: Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira
11:00etan: MEZA NAGUSIA Elizbarrin. Ondoren, Santiago imaginaren PROZESIOA parrokiaraino
 Ondoren: EZPATADANTZARIAK plazan, eta AURRESKUA; lehengo gizonak eta ondoren andrak
19:00etan: TORTILLA TXAPELKETA.

Partaideek ekarri behar dute dena: sua, arrautzak, olioia, kipula, patatak eta gatza
21:30ean: Dantza TI-TAU taldeagaz

UZTAILAK 27, EGUAZTENA

17:00etan: UMEENTZAKO JOKUAK
18:30ean: BRISKA TXAPELKETA plazan.
 Sariak:
 1.- 80 € eta txapela
 2.- 50 € 3.- 30 €
 4.- txanpain botila bi
 Izena-ematea: 10 € bikoteko

UZTAILAK 28, EGUENA

18:30ean: MUS TXAPELKETA plazan.
 Sariak: 1.- 80 € eta txapela
 2.- 50 € 3.- 30 €
 4.- txanpain botila bi
 Izen-ematea: 10 € bikoteko

UZTAILAK 29, BARIKUA

17:00etan: KORRIKA TXIKIA
22:30ean: KONTZERTUAK

UZTAILAK 30, ZAPATUA

18:00etan: ASTO KARRERA.
 Sariak:
 1.- 60 € eta garaikurra
 2.- 50 € eta txanpain botila
 3.- 40 € eta txanpain botila
 Asto denentzat pentsua eta 10 €
21:00etan: HERRI-AFARIA eta erromeria LUHARTZegaz

UZTAILAK 31, DOMEKA

11:00etan: MEZA DANTZARIAK eta DURANGALDEKO IGEL TXAPELKETA.

Sariak:

1.- Pernila 2.- Untxi bi 3.- Gazta bat
18:30ean: ASTRO PROBEN ERAKUSKETA
 1.- San Juan elkarte 2.- Satxibar
 3.- Urrola 4.- Artabeitti
 Sariak, erakusketa biak kontutan hartuta:
 1.- 350 € eta manta
 2.- 300 € eta garaikurra
 3.- 275 € eta garaikurra
 4.- 250 € eta garaikurra
 5.- 225 € 6.- 200 €
 7.- 175 € 8.- 150 €
23:00etan: Erromeria IZER taldeagaz. Ondoren, TXOKOLATEA



GARAIKO UDALA

Prozesioa eta dantzak, jaietako irudi klasikoa

Santiagoren imajinaren prozesioa dantzek lagunduko dute

Garaiko jaietako ekitaldirik jendetsuenetakoa izaten da Santiago imajinaren prozesioa. Aurten uztailaren 25ean, 11:00etako mezaren ondoren, jasoko dute Santiagoren imajina, prozesioan Elizabarriraino eramateko. Dantzariak kolorea eta jai-giroa ipini ohi diote ekitaldiari, eta aurten ere *Agintariena* eta *Gernikako arbola* dantzatzuz lagunduko dute. Ondoren, herri enparantzan ezpatadantzarien saioa egongo da. Hurrengo egunean, uztailaren 26an, prozesioa errepikatu egingo da, baina kontrako norabidean. Lehenengo, 11:00etan, Elizabarrin egongo da meza eta, ondoren, Santiago imajina parrokiara itzuliko dute, dantzarien jarduna lagun duela. Eguerdian, ezpatadantzarien dantzekin batera, ezkonduen aurrekuak ere erakutsiko dituzte; gizonena lehenengo, andrena segidan. Hilaren 25ean, arratsaldean, merinaldeko erregelen erakustaldia ere egongo da, dantza ikuskitzuzen egitaraua osatzeko.

Prozesioen ondoren, dantza saioak egongo dira; uztailaren 25ean merinaldeko erregelen erakustaldia

Txapelketak

Tradizio handiko ekitaldiak dira tortilla, mus eta briska txapelketak ere. Tortillak egiten onena nor den uztailaren 26an, 19:00etatik aurrera, erabakiko dute. Sukaldarien maisutasunak eta jakintzak erabakiko du irabazlea, ohiko produktuak bakarrik erabaki daitezkeelako, kipula barne.



Irabazleak 70 euro eta garaikurra jasoko ditu.

Abilidadea eta esperientzia izango dira briska eta mus txapelketen garaileak bereiztuko dituzten ezagunak ere. Briska txapelketa uztailaren 27an jokatuko dute, 18:30etik aurrera, herriko plazan. Irabazleak 80 euroko saria jasoko du; bigarrenak 50 eurokoa eta hirugarrenak 30 eurokoa. Uztailaren 28an jokatuko duten mus txapelketako lehenengo hiru sailkatuek ere sari berdina jasoko dute. Karta jokoen txapelketa horietarako izen-ematea 10 euro izango da. Tradizioa bihurtu den beste ekimena 'Korrika txikia' da. 29an, 17:00etan, irtengo dira euskararen alde herriko gaztetxoak.

Musika eta bertsoz jantzitako gau giroa

Disorder's zein Luhartzen doinuak aukeran



Santixauetan hasi eta San Inazio heldu bitartean, bateko zein beste-ko musika doinuz jantzitako egunak izango dituzte Garain. Horretara, doinu gogorragoak baztertu barik, dantzarako gonbita luzatuko dute jaietan.

Jone Uria, Julio Soto, Arkaitz Estiballes eta Unai Iturriaga arituko dira bertsoan, uztailaren 23an

Santixau bezperak ekarriko ditu estreinako erromeria doinuak Garaia. Ansorregi taldeak izango dau gau giroa berotzeko ardura. Santixau gaua, berriz, Laja II.a, Narbaiza eta Lurxurdioren esku geratuko da. Santa Ana gaua, aldiz, Ti-Tau plaza-taldeak girotuko du, eta, San Inazio bezpera lurretako Luhartzek. Izer taldeagaz agurtuko dituzte erromeria gauak San Inazio egunean.

Erromeria taldeek berotuko dute gau giroa. Doinu gogorragoak ere izango dira aukeran, Disorder's-en eskutik

Hala ere, bestelako doinuek ere izango dute lekurik aurtengo jai egitarauan: Zaldibarko Disorder's-ek punk-rock doinuak ekarriko ditu, uztailaren 29an.

Bertso saioa

Musikak ez eze, bertsoek ere izango dute lekurik Garaiko jaietan. Natxi Aranburu gai jartzaile dela. Jone Uriak, Julio Sotok, Arkaitz Estiballesek eta Unai Iturriagak eskainiko dute saioa, uztailaren 23an, gaueko 22:00etan.

Astoak proban eta lasterketan

Astoekin lotutako ekitaldiak gogo-ko dituztenek badute aukera ederra Garaiko jaietan. Alde batetik, asto-probak burutuko dituzte bi egunez, uztailaren 23an eta 31n. Bestetik, asto lasterketa antolatu dute uztailaren 30erako.

Probetako lehenengo egunean lau astok parte hartuko dute: Igor Otaolearenak, Urkiaga Aroztegiarenak, Maiora elkartearenak eta Vitorio Celayarenak. Bigarren egunean, berriz, beste lau hauek: San Juan elkartearnak, Satxibarrenak, Urrolarenak eta Artabeitirenak. Zortzirek edukiko dute saria, eta irabazleak manta ere bai.

Azkenik, uztailaren 30eko lasterketa 18:00etan hasiko da, eta lehenengo hirurentzat gordeko dute saria.

Asto-probak burutuko dituzte uztailaren 23an eta 31n, eta lasterketa antolatu dute hilaren 30erako

Mañariko JAI EGITARAUA

ABUZTUAK 13, ZAPATUA

19:00etan: TXUPINAZOA eta kanpai hotsak. Herriko plazan
AKERRAREN IGOERA
19:30etan: DANTZA ALARDEA
20:30etan: HERRI AFARIA
23:00etan: Kontzertuak: NIKO ETXART, ETA TXOMIN ETA URBIL ARTOLA
00:30etan: Erromeria LAIOTZ taldeagaz


ABUZTUAK 14, DOMEKA

11:00etan: MEZA eta DANTZARIAK
13:00etan: Herriko PILOTA TORNEOA
17:30etan: HERRI KIROLAK, BERTSOLARIAK eta SAGARDO DASTAKETA trikitilariekin eta pintxoekin
22:00etan: Kontzertua TRIO TXARANGA taldeagaz
23:30etan: Erromeria HAITZAMA taldeagaz



ABUZTUAK 15, ASTELEHENA

Egun osoan: Umeen jolasak
10:30etan: KALEJIRA txistulariekin
11:00etan: MEZA, ABESBATZA eta DANTZARIAK
12:30etan: Dantzariak plazan (AURRESKUA eta ATZESKUA)
13:00etan: Lau t´erdiko ANDRA MARI TORNEOA
17:00etan: KARABINA TIROA
22:00etan: HERRIKO TALDEEN KONTZERTUAK
23:30etan: TRIKI TA KE taldeagaz erromeria




ABUZTUAK 16, MARTITZENA

11:00etan: MEZA eta DANTZARIAK
13:00etan: PAELLA TXAPELKETA
14:30etan: HERRI BAZKARIA
16:30etan: TRIKIPOTEOA
17:00etan: BRISKA TXAPELKETA
18:00etan: IZURTZAKO DANTZARIAK
 19:00etatik 20:00etara: Erromeria DRINDOTSegaz. 22:00etan hasiko da berriro
23:00etan: AKERRA ERRE eta Ondoren, erromeria DRINDOTSegaz



ABUZTUAK 20, ZAPATUA

16:00etan: XXIV. Andra Mari Saria TXIRRINDULARI LASTERKETA



Akerra bueltan dator Mañariara

Txupinazoa Andra Mari koruak bota eta gero, akerraren igoeragaz hasiko dira jaiak

Durargon “zapoak” eta Mañarian “akerrak.” Historikoki horrela deitu izan zaie mañariarrei. Akerra jaietako maskota izan da hainbat biderrez, eta aurten ohitura hori berreskuratzeko ahalegina egingo dute: jaietako hasiera emateko, abuztuaren 13an, txupinazoa bota eta gero akerraren igoera egingo dute.

Arratsaldeko 19:00etan botako dute txupinazoa Andra Mari abesbatzako kideek. Gero akerra igoko

dute eta txosnan eskegita egongo da, jaiak amaitu arte. Hilaren 16an erre egingo dute maozko telaz egindako panpina.

Duela 26 urte jai batzordeak egin zuen lehenengoz akerraren panpina, eta hainbat urtean egin eta gero, batzordea deseginda ohitura galdu zen. 2007an eta 2008an Gazte Asanbladak berreskuratu egin zuen maskota. Azken urteetan ez da akerrik egon Andramarietan.

Herri-afaria

Jaietako lehen egun horretan, akerraren igoera ondoren dantza alardea egongo da plazan, eta 20:30ean afaritarako batuko dira mañariarrak. Abuztuaren 16an, martitzena, amaituko dira Andramariak, txupinazo egunean igotako akerra erreta. Eguerdian paella txapelketa eta herri bazkaria edukiko dituzte.

Mañariarrei “akerrak” deitu izan zaie eta 1985ean jai batzordeak akerra jaietako maskota bihurtu zuen



Herritarrek kirolari sagardo dastaketagaz

Bertsoz egingo dituzte jokoetako kronikak

Sagardo kupela plazan, trikitilariak, pintxoak... eta herri-kiroletan nork probak hobeto egin. Abuztuaren 14an, domeka, giro ederra sortuko da Mañarian, herri kirolen inguruan.

Txupinazoaren aurretik egiten zen sagardo dastaketa abuztuaren 14an izango da aurten, herri kirolekin batera

Herritarrek parte hartzeko aurten aurreko urteetan baino joko gehiago antolatu dituzte. Parte-hartzaileak animatu eta zirikatzeko bertsolariak herri-kirolen kronikak egingo dituzte.

Lehenago txupinazoaren aurretik egiten zen sagardo dastaketa herri-kirolekin batera egingo dute aurten. Jaietako bigarren egunak alaia eta parte-hartzailea izateko osagaiak izango dituela, zalantzarik ez. Herriko elkarten parte-hartzea eskatu dute horretarako Mañariko Udaleko arduradunek.



Gaztelu
CARPINTERIA
 Elondozko eta gaztainondoeko leihoak (PVC eta aluminioa), guk eginikoak
AROTZERIA ORO HAR:
 -Ate blindatuak -Tarimak
 -Barrualdeak -Zokaloak
 Aldabarrena Auzoa • MAÑARIA • Tel.: 94 681 81 74
 Faxa: 94 620 03 58 • Sakelekoa: 656 787 524

ERREKONDO
 jatetxea
 Andra Mari, 1
 Mañaria - Bizkaia
 Tel.: 94 681 85 77
 espezialitatea txuleta errea
 eguneko menua astelehenetik ostiralera
 asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz

Abuztuaren 13an, 23:00etan eskainiko dute Niko Etxart kantari zuberotarrak eta hark legez euskal kantagintzan hamarkadetako ibilbidea burutu duen Txomin Artolak eta bere seme Urbilek kontzertua Mañariako jaietan. Herri afariaren ostean, eta 24:30ean hasiko den erromeriaren aurretik eskainiko dute Etxartek eta Artola aita-semeek kontzertua.

Erromeriak eta herriko taldeen kontzertuak

Txomin eta Urbil Artola aita-semeek eta Niko Etxartek joko dute

Herriko musika taldeen kontzertuak ere jaso dituzte jai egitarauan: abuztuaren 15ean, 22:00etan

Andra Maria jaietako lau egunetan —abuztuaren 13, 14, 15 eta 16an— plazan dantzan jarduteko aukera izango dute erromeria-zaleek: Laiotz, Haitzama, Triki ta Ke, eta Drindots taldeek eskainiko dituzte dantzarako doinuak jaietan.

Abuztuaren 16an, esaterako, 19:00etatik 20:00etara, 22:00etan, eta suen ondoren, 24:30ak arte, hiru saio eskainiko ditu Drindots taldeak.

Bestelakoak izango dira abuztuaren 15 gaueko Andra Mariako doinuak; 22:00etan hasita, herriko



musika taldeen kontzertuak ere jasotzen ditu jai egitarauak.

Abuztuaren 14an, 22:00etan, bestalde, Mucedades taldean jardundako kantariak osatzen duten

Trio Txarango kantari hirukotearen saioa, abuztuaren 14an

Trio Txarango taldeak eskainiko du emanaldia. Herriko ahotsak ere izango dira Mañariko jaietan, baina, entzungai: abuztuaren 15ean da herriko abesbatzaren emanaldia.



XXIV. Andra Mari Saria abuztuaren 20an

Herri-kirolak ere ez dira faltako egitarauan

Kirolak ere izango du lekua Mañariko aurtengo jaietan, eta ekitaldi garrantzitsuenetakoa txirindulari lasterketa izango da segurutik; XXIV. Andra Mari Saria, hain zuzen ere. Abuztuaren 20an emango diete pedalei txirindulariek, arratsaldeko 16:00etan irtenda.

Txirindularitzaz gainera, pilota eta herri-kirolak ikusteko aukera egongo da. Abuztuaren 14an, 13:00etan, herriko pilota

torneoa jokatuko dute, eta 17:30erako ipini dute herri-kirol saioa. Pilotak 15ean edukiko du segida, 4 t'erdiko torneoagaz.

Abuztuaren 14an, herriko pilota torneoa jokatuko dute goizean, eta herri-kirol saioa ipini dute arratsaldean

**aserradero
zugazagoitia
agirre
maderas**

Aldegoiena, 2-a
48212 MAÑARIA (Bizkaia)
Tel-Fax: 94 681 87 98

HERRI-TABER

EGUNEKO MENUA - PLATER KOMBINATUAK
KAZUELATXOAK - OGIBITARTEKOAK
OTORDUAK ENKARGUZ

Herriko plaza. Tel.: 94 620 02 78 MAÑARIA

HARATEGIA - URDAITEGIA

BIZKARRA

BASERRIKO OKELA
TXORIZOAK ETA
ODOLOSTEAK


Tel.: 94 681 69 45 • Mug.: 615 78 12 47 • 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

Bikain

MORTEROS Y REVOCOS

Aldebarrena auzoa
Eskaerak: 946 20 07 62
Admin.: 946 20 24 96
48212 Mañaria (Bizkaia)
info@bikain.com
www.bikain.com

Mallabiko JAI EGITARAUA



ABUZTUAK 11, EGUENA

21:30ean: Open pilota partiduak, Mallabia I kirol etxean.

- 1) Txurruka-Romero/Iturbe-Elordui
- 2) Elezkano-Aldape/Berasaluze-Olalde

ABUZTUAK 13, ZAPATUA

22:30ean: Benito Lertxundi, Mallabia I kirol etxean.

ABUZTUAK 14, DOMEKA

12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik

18:00etara: Umeentzat parke berezia: puzgariak, txalupak... parkean.

19:00etan: Txupinazoa (Orratio Euskara Elkarteko kide den Pello Mugarzak botako du). Ondoren, Euskal preso eta iheslarien aldeko brindisa eta enkartelada.

19:30ean: Txokolatada plazan

(Errekondo elkarteak antolatuta).

21:30ean: Pilota partiduak, Mallabia I kirol etxean:

Euskal Seleksioko nesken pala partidua.

Ondoren, pilota profesionala: Urrutikoetxea-

Untoria / Olaetxea-Aretxabaleta eta Olaizola

II-Apr aiz / Bengoetxea VI-Patxi Ruiz.

(Mallabitarrentzat sarrerak abuztuaren 1etik 12ra bitartean egongo dira salgai, Udaletxean.

15 eurotan Mallabiko langabetu, ikasle eta jubilatuentzat bere egoeraren justifikazio txartela erakutsiz.

Gainerakoak 20 euro. Pertsona bakoitzari bina sarrera emango zaizkio gehienez. Takila 21:30etik aurrera zabalduko da, eta hemen sarrerak denentzat 25 eurokoak izango dira).

20:00etatik 22:00etara eta 23:30etik

01:30era: Luhartz taldearekin erromeria plazan.

ABUZTUAK 15, ASTELEHENA Andra Maria Eguna

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren, dantzariak eta bertsolariak (Xabier Amuriza eta Beñat Ugartetxea). Plazan hasi eta frontoian amaituko dute.

17:30ean: Mallabiko XXI. Harri-jasotze Saria, Harri txikia, Mallabia I kirol etxean: 100 kg.-ko zilindro zaharra eta 100kg.-ko bola.

Harri-jasotzaileak:

- Urrutia (Nafarroa)
- Izeta II (Gipuzkoa)
- Inhart (Bizkaia)
- Belioso (Gipuzkoa)
- Jagoba Otaegi (Gipuzkoa)

(Gainerako parte-hartzaileei 250 euroko dieta emango zaie. Dagoen marka topatzen duenari sari berezia emango zaio, 180 eurokoa.

Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea egun berberean amaituko da).

SARIAK

- 1.- 800 euro garaikurra eta txapela
- 2.- 650 euro eta garaikurra
- 3.- 500 euro eta garaikurra
- 4.- 400 euro

17:30ean Tute, mus, briska eta asto txapelketa, tabernetan.

SARIAK

- 1.-60 euro
- 2.-30 euro

23:00etan: Suak (bouqueta).

Ondoren, Garibaldi nazioarteko mariatxia, parkean.

ABUZTUAK 16, MARTITZENA San Roke Eguna- Nagusi eta Koadrilen Eguna

11:00etan: XII. Paella Lehiaketa, plazan. Taldeen izen-ematea momentu berean izango da. SARIAK:

- 1.- 160 euro eta garaikurra
- 2.- 110 euro
- 3.- 60 euro

12:00etan: Meza Nagusia.

14:00etatik 18:00ak arte: Jubilatuen bazkaria Probalekuan. Bazkalostean trikitilariak egongo dira: Kupela taldea.

18:00etatik 20:00etara: Aizkolarien erakustaldia. Ondoren, nagusien eta gazteen arteko herri kirol lehia, Mallabia I kirol etxean (Txondor herri kirol elkarteak eratuta). Gero, Mallabiko trikitilariekin plazatik frontoira kalejira.

20:00etatik 01:00etara: Mallabitar guztientzat txerri errea eta sagardotegi ibiltaria plazan (erromeria ere egongo da). Txerria jateko hiru pintxo euro bat izango da, eta sagardoa doan.

XXIII. Idi Proba Lehiaketa

abuztuaren 19, 20, 21 eta 22an

Mallabia I kirol etxean, **22:00etan.**

SARIAK

- | | |
|-------|---|
| 1.goa | 1.600 euro, garaikurra, txapela eta mantak. |
| 2. | 1.400 euro eta garaikurra |
| 3. | 1.300 euro eta garaikurra |
| 4. | 1.200 euro eta garaikurra |
| 5. | 1.100 euro |
| 6. | 1.000 euro |
| 7. | 950 euro |
| 8. | 860 euro |
| 9. | 770 euro |
| 10. | 680 euro |
| 11. | 600 euro |
| 12. | 520 euro |

OINARRIA: Nahiz eta sarietara ez heldu, 30 untzeko marka gainditzen duen idi pareak, 350 euroko saria izango du.



Orraitio elkarteak jaurtiko du txupina

Abuztuaren 14ko txupinagaz hasiko dira jaiak ofizialki

Lehenagotik ere ekitaldiak egongo diren arren, Andramariak abuztuaren 14ean hasiko dira, arratsaldeko 19:00etan. Egun horretan jaurtiko dute jai ofizialki hasiera ematen dien txupina.

Pello Mugarzaren arabera, egindako lanaren "aitorpen" lako bat da txupina jaurtitzeko ardura

Aurten Orraitio euskara elkar-teari dagokio ardura hori; hain zuzen ere, bertako kide den Pello Mugarza izango da txupina piztuko duena. 2005. urtean sortu zen euskara elkarte, eta ordutik egindako lanaren "aitorpen" moduan ulertzen du Mugarzak txupina jaurtitzeko



Txupin jaurtiketaren ondoren brindisa, enkartelada eta txokolatada plazan

ardura: "Udalaren babesa jasotzeko modua da". Jai ofizialki ematen dien txupin jaurtiketaren ondoren, euskal preso eta iheslarien aldeko brindisa eta enkartelada egingo dituzte. 19:30ean, berriz, txokolatada egongo da plazan.

XXIII. Idi Proba Txapelketa

Urtero legez, idi proba txapelketa jokatu dute Mallabiko Andra Marien baitan; aurten XXIII. edizioa du txapelketa horrek, gainera. Abuztuaren 26, 27, 28 eta 29an jokatu da txapelketa, gaueko 22:00tik aurrera. Guztira, 11.000 eurotik gora banatu dituzte

Abuztuaren 26, 27, 28 eta 29an jokatu dute txapelketa. Gaueko 22:00etan hasiko dira probak

sarietan; irabazleak 1.600 euro poltsikoratu ditu, garaikurra, txapela eta mantak irabazteaz gainera. Garaikurra lehenengo lau sailkatuek jasoko dute, gainera. Txapeldunordeak 1.400 euro irabaziko ditu, eta hirugarren eta laugarren sailkatuek 1.300 eta 1.200 euro, hurrenez hurren. Lehenengo 12 sailkatuen artean ez geratu arren, 30 unteko marka gainditzen duen idi pareak 350 euroko saria izango du.



Benito Lertxundik bere klasikoak eskainiko ditu

Hainbat erromeriak gauak girotuko dituzte

Musika arloan, Benito Lertxundi izango da Mallabiko Andramari-etako protagonista nagusia; oriotarraren emanaldiaz gainera, erromeriak ere egongo dira.

Euskal kantagintzako sortzaile txalotuenetakoa den oriotarrak bere diskografiako kanta klasikoak eskainiko ditu zuzenean. Horiez gainera, 2008an kaleratu zuen

Abuztuaren 13an izango da abeslari oriotarraren emanaldia, kirol etxean; kontzertua gaueko 22:30ean hasiko da

Itsas ulu zolia diskoko kantak ere abestuko ditu. Benito Lertxundiren emanaldia abuztuaren 13an izango da, Mallabiko Kirol Etxean; ikuskitzuna gaueko 22:30ean hasiko da.

Bestalde, dantza egiteko aukera ere egongo da Mallabian. Hilaren 14an, Umeen Egunean, 20:00etan hasiko da dantzaldia, Luhartz taldearen eskutik. Egun bat geroago, 15ean, Garibaldi mariatxi internazionalen emanaldia egongo da parkean. Abuztuaren 16an, martitzena, berriz, Sagardotegi Ibiltaria izango dute; txerri erre eta sagardoa eskaintzeaz gainera, erromeria egingo dute ekimena alaitu eta girotzeko helburuagaz.

GRAPHIDAPS^{SIA}
SERVICIOS DE IMPRESION

IMPRESA • INPRIMATEGIA

tarjetas • gutunak • tarifas
• calendarios • katalogoak •
karpetak • sobres • aldizkariak
• oroigarriak • eta abar

Goitondo Goikoa industrialdea z/g.
Ermua-Markina erp.
48269 MALLABIA (Bizkaia)
Telefonoa 943 170 168
Faxa 943 170 050

ASTARLOA ANAIAK
AROTZERIA

Osma auzoa-Salamatu bidea - 48269 Mallabia
Tel.: 617 16 33 91 • 689 707 645

EGOKI, S.L.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Arteiz Kalea, 1
Tel. 943 17 52 70
MALLABIA

www.furgolan.com

Tel.: 617 16 33 91 • 689 707 645

Sagardo eta pintxo dastaketarako aukera

Abuztuaren 16an, Sagardotegi Ibiltaria, 20:00etan



Abuztuaren 16ko San Roke egunean ekarriko dute, herritar guztiek dastatu dezaten, sagardo kupela Mallabiko jaietara.

Nagusien eta Koadrilen Eguna ospatuko dute Andra Maria jaietako martitzen horretan. Iluntzean, 20:00etan hasita, 01:00ak arte plazan izango da Sagardotegi Ibiltariaren

hitzordua. Doan dastatuko dute mallabitarrek sagardo, eta edaria laguntzeko hiru pintxo euro baten truke jasoko dituzte. Txerri errearen okelagaz eginda-

Iluntzean hasi eta goizaldera arte, jai giroan, sabela betetzeko aukera

ko pintxoak dira sagardo dastaketa laguntzeko eskainiko dituztenak.

Iluntzetik goizaldera arte, haizetara eta jai giroan sabela betetzeko ez ezik, dantzarako aukera ere izango da abuztuaren 16an Mallabiko jaietan.

Egun horretan ospatuko dute jaietako hamabigarren Paella Lehiaketa ere; 11:00etan emango dute parte-hartzaileek izena.

Harrijasotzaile eta pilotariak

Abuztuaren 11n, 21:30ean, Open pilota partidak izango dira jaien hasieran, Mallabia I Kirol Etxean.

Abuztuaren 14an, frontoi horreketan jokatuko dituzte profesionalen binakako partida bi ere: Urrutikoetxea-Untoria eta Olaetxea-Aretxabaleta; eta Olaizola II-Apraiz eta Bengoetxea VIa-Patxi Ruiz bikoteek jokatu dute jaialdi horretan.

Andra Maria egunean, bestalde, harri-jasotze saria hartuko du, Kirol Etxeak: Urrutia, Izeta III.a, Inhart, Belioso eta Otaegik jardungo dute 100 kg-ko zilindroa eta bola altxatzen.

Olaizola II.a eta Apraiz, Patxi Ruiz eta Bengoetxea VI.aren kontra



Excavaciones Jon
Lur mugimenduak

Jon Garitagoitia Gallastegui

MOTA GUZTIETAKO INDUSKETAK HONDAKINDEGIA

Pagotxueta, z/g • GERA
48269 MALLABIA
Tel.: 943 17 26 54
Mug.: 629 446 099

BETEARTE

BI-3342 errep., pk. 38 • Areitio Garaia
48269 Mallabia (Bizkaia)

AMALURRA[>]



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Landareak ihartu barik irauteko, ureztatze neurtua behar da udan

Goizeko lehenengo orduan ureztatuta, landareak onddoen ondorioz gaixotzea ekidingo dugu

Iluntzean ureztatuz gero, urari zoruko geruza sakonenetaraino heltzen lagunduko diogu

Noiz komeni da landareak ureztatzea? Zer egin oporretara goazenean? Hainbat galdera sortzen dira garaiotan.

Udan, tenperatura igotzeak lorategiak ahuldu egiten ditu, behar bezala zaindu ezean. Lorategien eta landareen edertasun naturalari eustea ureztatze egokiagaz zuzenean lotuta dago. Hobe da ur gutxiagaz edukitzea ura soberan botatzea baino; hau da, landareak urik barik geratuko diren beldur behar baino gehiago ureztatzen ditugu sarri, eta horrek konpondu ezin daitezkeen kalteak eragiten dizkie. Lurra lokazten denean, landareak botatako uretan elikagai asko joaten da eta, gainera, onddoen agerpena eragiten du.

Loreen kasuan, gutxi gorabehera, egunero ureztatu behar dira; bestalde, baratzeetan garrantzitsua izango da urak fruituak ez bustitzea. Barruko landareek lurra beti hezea eduki behar dute; horrela, lurra lehor-

utzen dabilela ikusterakoan ureztatuko beharko genuke.

Udan, landareak eta lorategia haiei eguzki-izpiek zuzenean eragiten ez dietenean ureztatu behar dira; hau da, egunsentian edo eguzkia sartzen denean. Eguneko ordu nagusietan ureztatuz gero, baliabideak murrizten ari gintezke; izan ere, beroagaz ura erraz lurruntzen da, eta landareek ez dute astirik behar adina ur xurgatzeko. Gainera, hostoetan geratzen diren ur tantek, lupak legez, eguzkiagaz erretzea ekar dezakete.

Goizeko lehenengo orduan ureztatuta, landareak onddoen ondorioz gaixotzea ekidingo dugu, eta iluntzean ureztatuz gero, berriz, urari zoruko geruza sakonenetaraino heltzen lagunduko diogu, ura ia ez da-eta lurrundu ere egiten.

Ureztatze maiztasuna, neurri handi batean, landare-motaren arabera izango da; ez da berdin orkidea, geranioa edo bitxilorea izatea.

Kanpoan gaudenean

Oporretan, kanpora goazenean, zer egin genezake landareak ez ihartzeko?

Asko erabiltzen den metodoetako bat kapilaritate bidezko ureztatzea da; sokaren mutur bat urez betetako pertz batean sartzean da eta beste muturra loreontziko lurretan. Beste sistema bat botila bete ur loreontzian sartzea da, tapan zulo txiki bat duela. Horrela, lurrak berak hornituko du urez landarea. Gure lorategia handia bada, ureztatze-programatzaileak askoz ere sofistikatua izango dira, aukeran.

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



**EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK**



KIROLAK >

Sasoi betean ekingo dio Iñaki Lejarretak denboraldi amaierari

Asteburu honetan Espainiako Txapelketetan lehiatuko da berriztarra. Abuztuan, ostera, Europako Txapelketan eta Munduko Kopako bi probatan lehiatuko da Orbeako kidea.



Lejarreta kontzentratuak, Pietermaritzburgeko (Hegoafrika) proban. Munduko Kopako lehenengo proba izan zen hura.

Denboraldiko azken txanpari ekitekotan da Iñaki Lejarreta berriztarra. Munduko Kopako bi probatan lehiatu da Orbea taldeko kidea; hain zuzen ere, Kanadan eta Estatu Batuetan egon da uztailean Lejarreta.

Iritsi eta indarrak berreskuratzeke ia astirik gabe, Becerril de la Sierrara abiatu da Lejarretara. Espainiako Txapelketak jokatu dira bertan, gaurtik domekara bitartean. Gaur bertan, Team Relay modalitatean lehiatuko da berriztarra; taldeko erreleboak egin beharko dituzte parte-hartzaileek. Hamar urteren ostean, berriztarra Euskal Selektzioagaz lehiatuko da. Domekan, ostera, bakarka arituko da Lejarreta. Nekaturik egon arren, "gogotsu" dagoela aitortu du berriztarra. "Bidaia luzeak izan dira, eta ez dakit gorputzak zelan erantzun duen".

Aste gogorak aurretik

Ondoren, lehia gogorak izango ditu berriztarra. Lehenengo

10 urteren ondoren, Euskal Selektzioagaz lehiatuko da Lejarreta

Eslovakiara bidaiatuko du Lejarretak; bertan jokatu da Europako Txapelketa, abuztuaren 7an. Astebete geroago, Munduko Kopari ekingo dio berriro; Txekiar Errepublikan lehia horretako seigarren proba jokatu da abuztuaren 14an. Lejarretak berak dioenez, ondo dago "fisikoki zein psikologikoki", eta lehenengo hamarren artean sailkatzea bilatuko du. Bertako zirkuituetan lehiatuko den lehenengo aldia izango du berriztarra, eta horrek eragin dezakeela uste du.

Asteotan Eslovakian, Txekiar Errepublikan eta Italian arituko da

Ezberdina izango da, ordea, abuztuaren 20ko proba; Munduko Kopako azken proba jokatu da, Italian. "Zirkuitua ezagutzen dut, eta ondo moldatuko naizela uste dut" adierazi du Orbeako kideak.

Sentsazio gazi-gozoa

Kanada eta AEBetan lehiatzen iritsi berri da Iñaki Lejarreta; 23. eta 24. sailkatu da proba horietan, hurrenez hurren, hala ere,

sentsazio "gazi-gozogaz" amaitu ditu probak. Kanadan lorturiko postua "onargarria" da Lejarretaren berbetan, zirkuitua ez zelako beretzat egokiena. "Irteera txarra egin nuen, eta jende asko aurreratu behar izan nuen". Bestelako iritzia du Winhameko (AEB) emaitzaz: "Hobeto egiteko itzaropena nuen"; itzuli batzuetan, 10. postutik hur egon zen berriztarra. ■ A. Maldonado.

Winhameko proban emaitza hobea lortu zezakeelakoan zegoen Iñaki Lejarreta



Orbeako txirrindularia, lehia bete-betean.

Ziortza Isasi Euskaldun Txapelketako irabazle

Ciclos Iturriaga taldeko Ziortza Isasi bigarren irabazi du Euskaldun Txapelketa; kadeten mailan lehiatu da elorriarra. Isasi abantailagaz irabazi du txapelketa, gainera. Txapelketako azken lasterketan, Logroñon, laugarren iritsi zen helmugara, hala ere, lehenagotik lortuak zituen txapeldun izateko beharrezko puntuak. Bestalde, asteburu honetan, kadete mailako Espainiako Txapelketan lehiatuko da Isasi, Euskal Selektzioagaz. Domekan, ostera, Olatz Agorriak eta Aiala Amestik 'La Ladies Charentaise' proban parte hartuko dute, Bizkaiko Selektzioagaz. ■ A.M.

Bihar ospatuko da parapente kontzentrazioa

Joan den zapatuan, uztailearen 9an, ospatzekoa zen parapente kontzentrazioa astebetez atzeratzea erabaki zuten Erorrioko Larrano parapente taldeko kideek. Egun horretan parapentean aritzeko baldintzarik ez zela beteko aurreikusituz Larranoko kideek, eta astebetez atzeratzea erabaki zuten.

Parapente kontzentrazioa, beraz, bihar ospatuko da; goizeko 11:00etan geratu dira Erorrioko plazan, Udaltzera igotzeko; parapenteak autoan igoko dituzte. Despegea gailurra baino 500 metro beherago izango da. Ekimena ospatuko den seigarren biderra izango da biharkoa. ■ A.M.

Mendi martxa antolatu du Zaldua taldeak

Urtero legez, mendi martxa antolatu du Zaldibarko Zaldua mendi taldeak. Ibilaldia zapatuan ospatuko da; goizeko 07:00etan ekingo diote ibiltzeari. Irteera Zaldibarko elizan izango da, eta bertan egongo da izena emateko aukera. Horretarako 06:15-06:45 bitartean bertatik igaro beharko da. Zalduko bazkideek eta laguntzaileek bi euro ordaindu beharko dituzte martxan parte hartu ahal izateko; gainerakoek, berriz, bost euro. Ibilaldia 29 kilometrokoa izango da, eta antolatzaileen arabera, 5 ordu inguru iraungo ditu. ■ A.M.

Trial txapelketa jokatu da Atxondon, bigarrenenez

Uztailaren 23an ospatu da lehia, 15:00tik aurrera. Atxondo 4x4 taldeak antolatu du proba. EHko txapelketarako puntuagarria da



Motor hotsaz gainera, giroa eta lehia ziurtaturik egongo dira Markoidako landetan.

Iazko Trial txapelketa izan zuen harrera ikusita, egitasmoa errepikatzea erabaki du Atxondoko 4x4 taldeak. Uztailaren 23an, Atxondoko II. 4x4 Trial Txapelketa jokatu dute; arratsaldeko 15:00etatik aurrera hasiko da motor hotsa.

Iazko moduan, Markoidako landetan izango da zirkuitua, eta bertan ezarriko dituzte pistak. "Sei edo zazpi pista prestatuko ditugu", azaldu dute antolatzaileek. Pilotuek euren treberzia erakutsi beharko dute ibilbide gorabeheratsuetan zehar.

Antolatzaileen berbetan, ikuskizuna ziurtaturik egongo da Markoidako landetan. Atxondoko proba puntuagarria izango da Euskal Herriko Txapelketarako, eta horrek hainbat pilotu

25 pilotuk parte hartuko dutela aurreikusi dute

